



DIARIO DE SESIONES  
DEL  
**PARLAMENTO DE NAVARRA**

---

IX Legislatura

Pamplona, 16 de mayo de 2018

NÚM. 5

---

**TRANSCRIPCIÓN LITERAL**

**COMISIÓN ESPECIAL PARA LA ELABORACIÓN DE UNA  
NUEVA LEY FORAL DEL EUSKERA**

PRESIDENCIA DEL ILMO. SR. D. DABID ANAUT PEÑA

**SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 16 DE MAYO DE 2018**

**ORDEN DEL DÍA**

— Comparecencia de D.<sup>a</sup> Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Doctora en Ciencias Educativas por la Universidad de Ginebra, Catedrática del Departamento de Lingüística y Estudios Vascos de la Universidad del País Vasco y Coordinadora de la Cátedra UNESCO de Patrimonio Lingüístico Mundial de la Universidad del País Vasco.

(Comienza la sesión a las 9 horas y 21 minutos).

**Comparecencia de D.<sup>a</sup> Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Doctora en Ciencias Educativas por la Universidad de Ginebra, Catedrática del Departamento de Lingüística y Estudios Vascos de la Universidad del País Vasco y Coordinadora de la Cátedra UNESCO de Patrimonio Lingüístico Mundial de la Universidad del País Vasco.**

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Egun on. Hasiera emango diogu beraz gaurko saioari. Gaurko saioan hemen Itziar Idiazabal Gorrotxategi daukagu, hizkuntzalaritza eta euskal ikasketa saileko katedraduna dena Euskal Herriko Unibertsitatean. Genevako Unibertsitatean doktorea da, psikolinguistika alorrean. Bere ikerketak haur elebidunen hizkuntza jabekuntzaren, euskararen azterketa diskurtsiboaren eta irakaskuntza elebiduna zein eleanitzenaren ingurukoak dira. Euskalgintzan hainbat erakundetean parte hartu du eta parte hartzen du. Euskaltzain urgazlea ere bada eta Euskararen Aholku Batzordeko kidea ere bai. Eusko Herriko Unibertsitateko munduko hizkuntza ondarearen UNESCO katedraren koordinatzailea da 2007. urteaz geroztik.

*[Buenos días. Vamos a comenzar la sesión de hoy. En la sesión de hoy tenemos con nosotros a Itziar Idiazabal Gorrotxategi, catedrática en el Departamento de Lingüística y Estudios Vascos en la Universidad del País Vasco. Es doctora por la Universidad de Génova en el ámbito de la psicología. Sus investigaciones versan sobre la hegemonía de la lengua por parte de los niños bilingües, el análisis discursivo del euskera y educación bilingüe y plurilingüe. Ha participado y participa en diversos organismos de la actividad cultural vasca. También es miembro correspondiente de Euskaltzaindia y miembro del Consejo asesor del Euskara. Desde 2007 es la coordinadora de la Cátedra UNESCO de Patrimonio Lingüístico Mundial.]*

Dakizuen bezala gaurko saioaren gaia hizkuntzen trataera irakaskuntzan da. Horretaz ariko da Itziar Idiazabal. Badauka kurrikulum eta ezagutza nahikoa horren inguruan hitz egiteko. Beraz, saioarekin hasiko gara. Ordu erdiko tartea izanen du bere azalpena egiteko eta ondoren denon txanda hartzea edo hitza hartzea egingo dugu. Nahi duzunean, Itziar. Zurea da hitza.

*[Como saben, el tema de la sesión de hoy es el tratamiento de las lenguas en la educación. Sobre eso hablará Itziar Idiazabal. Tiene un currículum y unos conocimientos suficientes para hablar sobre ello. Por lo tanto, empezamos la sesión. Tendrá un tiempo de media hora para realizar su explicación y después tomaremos el turno o la palabra todos. Cuando quiera, Itziar. Tiene usted la palabra.]*

SRA. IDIAZABAL GORROTXATEGI: Egun on eta mila esker gonbidatzeagatik. Niretzat ohore bat da Nafarroako Parlamentuan hitz egiteko aukera izatea eta oso pozik etorri naiz. Ez dakit nik esango dizuedanak zerbaitetarako balioko dizuen baina saiatuko naiz nolabait baliagarria izaten, alferrikako hitzetan ez galtzen.

*[Buenos días y muchas gracias por la invitación. Para mí es un honor tener la oportunidad de hablar en el Parlamento de Navarra y he venido muy contenta. No sé si les servirá para algo lo que yo les voy a decir, pero trataré de ser útil y no perderme en palabras inútiles.]*

Izenburua emandakoa da, hizkuntzen trataera eta hezkuntza. Bide batez, ohar bat esan nahi dut. Diapositiba gehienak itzuli egin ditut, nahiz eta badakidan itzultzaileak badaudela. Baina batzuentzat irakurtzeko zailtasuna ere badago, ahalik eta errazen egiten ahalegindu naiz. Esan bezala, hizkuntzak eta hezkuntza beti eta edonon oso lotuak egoten diren gaiak dira, eta gurean ere bai. Horren inguruan, hemen agertzen diren bost puntu hauetan zentratuko naiz. Batetik, apur bat helburuetan oinarrituko naiz edo helburuetan sartuko naiz, izan ere, badakigu munduko eskola guztietan hizkuntza beti kontuan hartzen dela eta hizkuntzarentzat beti helburu nahiko ezagunak edo jakinak edo jakintzat ematen direnak daudela. Gutxitan egiten dira esplizitu. Hau da, zehazki esan zein den eskola horren helburua hizkuntza kontuan. Eta nik uste dut gurea bezalako sistema propio, berezi eta aurrerakoi batean derrigorrezkoa dela horri buruz zerbait esatea. Helburuak beraz.

*[El título es el que se ha dado, el tratamiento de los idiomas y la educación. De paso, quiero hacer una anotación. he traducido la mayoría de las diapositivas, aunque ya sé que hay traductores. Pero si algunos tienen dificultades con la lectura, he tratado de hacerlo más sencillo. Como he dicho, los idiomas y a educación son dos temas que siempre están muy unidos en cualquier lado, y también en nuestro tema. Sobre ello, me centraré en los cinco puntos que aparecen aquí. Por un lado, me basaré un poco en los objetivos o me adentraré en ellos, ya que sabemos que en todas las escuelas del mundo se tiene en cuenta siempre la lengua y que para la lengua siempre hay objetivos bastante conocidos o sabidos o al menos que se dan por sabidos. Pocas veces se dan explícitamente, es decir, decir concretamente cuál es el objetivo de esa escuela en cuestión de lengua. Y yo creo que en un sistema propio, especial y avanzado como el nuestro es obligatorio decir algo al respecto. Por lo tanto, objetivos.]*

Helburuekin batera eta helburu orokorra denontzat kalitatezko hezkuntza eta XXI. menderako egokia den hezkuntza baten bila gabiltzanez, hori pixka bat nola irudikatzen dudan nik esango dut. Nik esan dut, jakina, nire ikuspuntutik ikusten edo erakutsi edo aipatuko dut, baina ahalegindu naiz, ez dakit lortu dudan, nolabait besteen edo ez dakit, Nafarroako egoera ez dut hain ondo ezagutzen. Zuek bertakoak zarete, zuek jakingo duzue nik esandakoa egokitzen den ala ez, baina ahalegin hori egiten saiatu naiz. Alegia, nire ikuspuntu soila ez, nire ikuspuntutik baina baita ere zuen ikuspuntura ahalegintzen edo egoitzen ahalegindu naiz nolabait.

*[Junto a los objetivos y como de objetivo general tenemos la búsqueda de una educación de calidad para todos y de una educación adecuada para el siglo XXI, voy a decir un poco como concibo eso. He dicho, claro, que lo comentaré o mostraré o lo veo desde mi punto de vista, pero me esforzaré, no sé si lo conseguiré, en tratarlo desde el punto de vista de los demás o no sé, la situación de Navarra no la conozco tan bien. ustedes son de ahí, ustedes sabrán si lo que o digo se adecúa o no, pero trataré de hacer ese esfuerzo. Es decir, no solo mi punto de vista, sino desde mi punto de vista, pero también trataré de algún modo en adecuarlo a su punto de vista.]*

Kalitatezko irakaskuntza eleanitz horrek euskara hizkuntza gutxitua barne hartu behar duela proposatzen dut. Eta hori zergatik eta nola egin daitekeen erakusten edo horren ezaugarriak aipatuko ditut. Ondoren, pixka bat kalitatezko irakaskuntza eleanitz hori aurrera eramateko zein baliabide ditugun, eta horretan nik uste dut asko aurreratu dugula. Hau da, hizkuntzen

didaktikan aurrerapen asko egin ditugu azken urteotan. Eta zaharkituak edo besterik gabe aurreiritzia besterik ez zirenak albora uzteko ahalegina ere egin da eta egiten jarraitu behar dugu. Izan ere, hizkuntza kontuetan beti funtzionatzen du gure ikuspuntuak, gure ideologiak, gure izaera sozialak. Hizkuntza ez da gauza biologikoa. Hizkuntza gauza soziala den heinean dena uztartzen du eta hor badaude ikuspuntu edo aurriritzi batzuk egokiak eta zuzenak direnak eta beste batzuk, berriz, inolako oinarri zientifikorik ez dutenak. Pixka bat horretan ahaleginduko naiz. Hori laburbilduko dut. Eta bukatzeko, jakina, beti esan behar da zerbait erronka edo eztabaidarako balioko duena.

*[Propongo que esa educación plurilingüe de calidad tiene que tomar la lengua minoritaria del euskera. Y mostraré por qué y cómo se puede hacer eso y comentaré las características. Después, comentaré qué recursos tenemos para sacar adelante esa educación plurilingüe de calidad, y yo creo que en eso hemos avanzado mucho. Es decir, en los últimos años hemos hecho muchos avances en la didáctica de las lenguas. Y se ha hecho un esfuerzo, y tenemos que seguir haciéndolo, en dejar de lado las anticuadas o lo que simplemente era prejuicios ya que en las cuestiones de lenguas siempre funciona nuestro punto de vista, nuestra ideología, nuestra naturaleza social. La lengua no es algo biológico. En la medida en la que la lengua es algo social, todo confluye y ahí hay algunos puntos de vista o prejuicios que son adecuados y otros que no tienen base científica. Me esforzaré un poco en eso. Resumiré eso y para finaliza, por supuesto, siempre hay que decir algo que sirva como reto o para el debate.]*

Beraz, hori da nik eskuartean jarri dudana gaitesia. Zuek esango didazue nahikoa, baliagarria edo interesgarria den edo beste zerbaiti buruz hitz egitea nahi baldin baduzue eta horretarako galde eta erantzunen atala edukiko dugu.

*[Por lo tanto, ese es el temario que pongo entre manos. Ustedes me dirán si es suficiente, útil o interesante o si prefieren hablar de otra cosa y para eso tendremos el apartado de preguntas y respuestas.]*

Helburuak. Ze helburu? Jakina, gaur egun eleanitza ez den irakas sistema, eleanitza ez bada, ez da gaurkoa, ez da XXI. mendeko eredua. Derrigorrez, eta gustu handiz eta gure indar guztiekin egin behar dugu irakas sistema eleanitza. Eleanitza zer hizkuntzekin egiten dugun, beharbada, hori dago aukera, eta gurean, noski, euskara oinarri edo euskara ardatz edo euskara behintzat kontuan hartzen duen irakaskuntza eleanitza behar du izan. Eta hori ziurtatzea, hau da, gutxienezko oinarritzko ezagutza batzuk behintzat bertakoa den, gure ondarea den hizkuntza horretan izatea derrigorrezkoa iruditzen zait, nahiz eta derrigortasunak, beste maila batzuetan, askoz ere modu malguagoan tratatu beharko genituzkeen. Aniztasunean eta inklusioan hezitzen duen eskola behar du izan, dela hizkuntza mailan dela beste ezaugarri sozial edo kulturaletan ere. Eta hemen ari naiz kontuan hartzen eleaniztasuna ez dela eliteentzat bakarrik egiten dugun sistema bat; ikasle guztientzako egite dugun zerbait da, hain zuzen ere, eleaniztasun horrek nolabait diskriminazioaren kontra egiteko daukagun arma edo baliabide handi bat delako. Beraz, helburu horiek gure artean edo esku artean edo ikusmiran jartzen baldi baditugu, derrigorrezkoa da hori kalitatearekin lotzea.

*[Objetivos. ¿Qué objetivos? Claro, un sistema educativo que actualmente no sea plurilingüe, si no es plurilingüe no es actual, no es un modelo del siglo XXI. Tenemos que*

*hacer plurilingüe nuestro sistema educativo obligatoriamente, de buena gana y con todas nuestras fuerzas. ya con qué lenguas lo hacemos plurilingüe ahí está la elección y en nuestro caso, claro, tiene que ser una educación plurilingüe que tenga como base o como eje el euskera o que al menos tenga en cuenta el euskera. Y me parece imprescindible que se asegure eso, es decir, que se tengan unos conocimientos mínimos de una lengua local y que es nuestro patrimonio, aunque deberíamos tratar la obligatoriedad en otros ámbitos de manera más flexible. Tiene que ser una escuela que eduque en pluralidad e inclusión, ya sea a nivel de lenguas como también en otras características sociales y culturales. Y aquí estoy teniendo en cuenta que el plurilingüismo no es un sistema que hemos hecho para las élites; es algo que hacemos para todos los estudiantes y que concretamente ese plurilingüismo es el arma o un gran recurso que tenemos para luchar de algún modo contra la discriminación. Por lo tanto, si ponemos esos objetivos entre nosotros o entre manos o en el punto de mira, es imprescindible unir eso con calidad.]*

Eta kalitate hori zer da? Irudikatzen duguna eskola bati buruz ari garenean. Ezinbestean, bertako ondare kulturala transmititzen duen eskola da. Alegia, euskara Nafarroa osoko eta Espainiako ondarea da. Beraz, ondare hori ezin dugu alhora utzi Nafarroako hainbat ondare bezala, beste maila batekoak. Hau ez da materiala. Materiala ez den ondarea da, baina ondare oso landua, oso aberatsa, mundu osoak begi-bistan hartzen duen zerbait da. Hau da, gaur egun euskararen mundua ez da euskaldunen altxorra bakarrik. Mundu osoarena da. Eta hori frogatzeko adibide asko edukiko genituzke, baina ez naiz adibideetan sartuko edo bestela luzatu egingo naiz eta ez dut esango printzipioz oinarritzotzat hartu dudana.

*[¿Y esa calidad qué es? Lo que imaginamos cuando hablamos de una escuela. Necesariamente una escuela que transmita el patrimonio cultural local. Es decir, el euskera es patrimonio de toda Navarra y de toda España. Por lo tanto, no podemos dejar de lado ese patrimonio, como tantos otros patrimonios de Navarra de otros niveles. Este no es material. Es un patrimonio inmaterial, pero es un patrimonio trabajado, muy rico, que es evidente ante los ojos de todo el mundo. Es decir, hoy en día el mundo del euskera no es un tesoro únicamente de los vascoparlantes. Es de todo el mundo. Y para probar eso tendríamos muchos ejemplos, pero no entraré en ejemplo o me alargaré y no diré lo que en un principio he tomado como fundamental.]*

Eskola eleanitza da kalitatezko eskola, lehen esan dudana bezala, eta bertan, bertako hizkuntzak, atzerritar bat edo bi eta migrazioaren bitartez etortzen zaizkigun hizkuntzak ere kontuan hartu behar dira. Horiekin zer egin behar den beste kontu bat da. Baina ezin dira ez baleude bezala jokatu. Lehen esan dut eleaniztasuna guztiontzat nahi dugula gainera. Migratzaileak bai, haiek eleanitzak dira ez dakit nondik datozelako eta horiek bai. Ez eliteentzako bakarrik, diplomatikoentzako bakarrik. Ez, eleaniztasuna denontzako behar du izan.

*[La escuela plurilingüe es una escuela de calidad, como he dicho antes, y ahí tienen que tenerse en cuenta las lenguas locales, una o dos extranjeras y también las lenguas que nos llevan mediante la migración. Qué es lo que hay que hacer con esas ya es otra cuestión. Pero no se puede actuar como si no estuvieran. Antes he dicho que el*

*plurilingüismo lo queremos para todos. Los migrantes sí, ellos son plurilingües porque vienen de no sé dónde y ellos sí. Que no sea solo para las élites, para los diplomáticos. No, el plurilingüismo tiene que ser para todos.]*

Beste helburu bat jartzen dut hemen, kalitatezko eskola definitzen duena eta da hizkuntzak erakusten dituen eskola horrek hizkuntza horiek erabiltzeko erakutsi behar dituela. Hori da kalitatezko eskola. Ez hizkuntza batzuei buruz gauza batzuk ikastea, garai batean, ez dakit, nire garaian frantsesa eskolan ikasten zen bezala. Frantsesari buruzko hitz zerrenda osoak, ortografia legeak eta itzulpenak egiten genituen. Gauza asko egiten genituen, baina ez genuen hizkuntza hori ezertarako erabiltzen. Orduan, hori ez da kalitatezko eskola hizkuntza kontuan zerbait egitea nahi baldin badugu. Benetan hizkuntza erabiltzeko erakusten duen irakaskuntza eleanitza da nahi duguna.

*[Aquí pongo otro objetivo que define la escuela de calidad y es que esa escuela que enseña lenguas tiene que enseñarlas para utilizarlas. Esa es una escuela de calidad. No aprender algunas cosas sobre algunas lenguas, como se aprendía el francés en la escuela en una época, en mi época. Hacíamos listas completas de palabras en francés, normas ortográficas y traducciones. Hacíamos muchas cosas, pero no utilizábamos esa lengua para nada. Entonces, esa no es una escuela de calidad si queremos hacer algo respecto a las lenguas. Queremos una educación plurilingüe que de verdad enseña a utilizar el idioma.]*

Eta, azkenik, helburu bezala kontuan hartu behar dugu kalitatezkoa izateko komunitateak onartua, komunitate pedagogikoak lehendabizi, hau da, guraso, irakasle eta ikasleek bere egiten duten proiektua izan behar duela. Nolabait eskola gizartean itsatsia, gizartearen barnean dagoena, ez gizartearen kontra edo gizartetik urrun dagoena. Hori ez da eskola ona. Sekulako eliteko eskola izan daiteke, baina hura han irla bat bezala baldin badago, hori ez da eskola ona, nahiz eta hango emaitzak oso onak izan. Gure eskola ona eta kalitatezkoaren irudia beste bat da. Gizartean itsatsia, gizarteak bere egin duena eta nolabait komunitate pedagogiko horrek inplikazioarekin erakusten duena.

*[Y, finalmente, como objetivo tenemos que tener en cuenta que para ser de calidad la sociedad tiene que admitirla, primeramente, la comunidad pedagógica, es decir, tiene que ser un proyecto que padres y madres, profesores y estudiantes hagan suyo. De algún modo la escuela tiene que estar pegada a la sociedad, introducida en la sociedad, no en contra de ella o lejos de la sociedad. Esa no es una buena escuela. Puede ser una gran escuela de élite, pero si está ahí como en una isla, esa no es una buena escuela, aunque sus resultados sean muy buenos. La imagen de nuestra escuela buena y de calidad es otra. Pegada en la sociedad, que la sociedad haya hecho suya y que de algún modo esa comunidad pedagógica muestre con implicación.]*

Horrelako zita bat jarri dut ingelesezko liburu batetik aterata. Aspalditik, hamar edo hamabost urtez, izugarritzko lan pilo bat ari da argitaratzen mundu osoan irakaskuntza eleanitzari buruz. Eta hemen esaten den bezala, *bilingual education* aipatzen du. Elebitasunak eskolaren kalitatean eta gaitasunean ematen ditu onurak. Ez da bakarrik ikasleei gaitasun batzuk irakastea, baizik eta eskola bera hobetzeko aukera ematen duela irakaskuntza eleanitzak. Beraz, horrek beste arrazoi bat ematen digu. Kalitatezko eskola ez da bakarrik hizkuntzak

irakasten dituen, baizik eta eskola bera goitik behera eraldatzen duena eta eskolaren kalitatea hobetzen duena da. Eta hori ere frogatu daiteke eta jende askok esaten duen zerbait da, hemen zita horretan ikusten den bezala.

*[He puesto una cita sacada de un libro en inglés. Está publicando muchos trabajos desde hace tiempo, unos diez o quince años, sobre la educación plurilingüe en todo el mundo. Y como se dice aquí, nombra la bilingüal education. El plurilingüismo ofrece beneficios en la calidad y capacidad de la escuela. No es solo enseñar unas capacidades a los alumnos, sino que la educación plurilingüe ofrece la oportunidad de mejorar la propia escuela. Por lo tanto, Eso nos da otra razón. La escuela de calidad no es solo la que enseña idiomas, sino la que transforma de arriba abajo la escuela y la que mejora la calidad de la escuela. Y eso se puede probar y es algo que dice mucha gente, como se ve en esta cita.]*

Hemen zita batzuk dauzkat Europako Kontseilukoak edo UNESCO-koak, adibidez. Berriki edo jada urte asko pasa dira, baina Australia aldean eta bertan esaten da ingelesa erakusten dela eta kito. Denek ingelesa dakite eta ez da ezer gertatzen. Gero, badakizu bertako aborigenek sekulako arazoak dituztela, baztertuak daudela, nolabait talde marginalak direla, haien hizkuntzak galtzen ari direla sekulako abiadan. Eta ez dut esango bat-batean, ze jende asko egon da han lanean urte askotan, baina ari dira, hemen esaten dudana bezala, ipar-hegomendebalean, ez dakit oso ondo zer eskualde den, baina hango hizkuntza bati buruz ari dira. *Wiradjuri* bertako hizkuntza da, europarrak hara joan aurretik milaka urtetan hitz egin zena. Orain ari dira, 2014tik hona, derrigortzen ikasle guztiek, ez aborigenek bakarrik, baizik eta aborigenak ez direnek ere, hizkuntza hori ikasteko proiektuetan daude. Horrek, beste gauza askoren artean, azkenean esaten den bezala, «learning this language is providing a connection between Aboriginal and Non Aboriginal». Aborigena eta ez aborigenen arteko lotura eta elkarren arteko bizikidetzaz lantzeko, beharrezkoa ikusi dute bertako hizkuntza, erdi galdua dagoen hori, ez bakarrik komunitate horretako sentitzen direnentzako, baizik eta guztientzat.

*[Aquí tengo algunas citas del Consejo Europeo o de la UNESCO, por ejemplo. Hace un tiempo o hace ya muchos años, en Australia se dice que allí solo se enseña el inglés y ya. Todos saben inglés y no pasa nada. Después, sabes que los indígenas de allí tienen grandes problemas, que están marginados, que en cierto modo son grupos marginales, que sus lenguas se están perdiendo a gran velocidad. Y no voy a decir que de repente, porque ha habido mucha gente trabajando durante muchos años, pero, como dice aquí, en el noroeste-sureste, no sé muy bien qué región es, pero están trabajando en una lengua de allí. El wiradjur es una lengua de allí, que se hablaba durante miles de años hasta que llegaron los europeos. Ahora, desde el 2014, hay proyectos que están obligando a todos los estudiantes, no solo a los aborígenes, sino también a los que no son aborígenes, a aprenderla. Eso, entre otras muchas cosas, como se dice al final, «learning this language is providing a connection between Aboriginal and Non Aboriginal». Para trabajar la conexión y la convivencia entre aborígenes y no aborígenes, han visto que es necesaria la lengua local, esa que está medio perdida, no solo para los que se sienten parte de esa comunidad, sino para todos.]*

Beraz, esan nahi dut horrelako proposamenak eta horrelako hezkuntza mailako aldaketa sakonak mundu osoan ari direla egiten, batez ere pentsatzen bada eta horren inguruan kezka

baldin badago eta besterik gabe «galduko dira eta zer egingo dugu», horren aurrean ardua bat erakusten duten lekuetan. Eta Australia ez da beste herrialde asko bezalakoa, baina aurrerapen asko egin dituen herria da, ez bakarrik hizkuntzaren kontuan, baizik eta beste batzuetan ere. Eta horrelako adibideak gero eta gehiago agertzen ari dira.

*[Por lo tanto, quiero decir que ese tipo de propuesta y cambios profundos a nivel educativo están ocurriendo en todo el mundo, sobre todo en los lugares en los que se piensa sobre eso y hay una preocupación al respecto y muestran una preocupación frente al «van a desaparecer y no podemos hacer nada». Y Australia no es como otros muchos países, pero es un país que ha avanzado mucho, no solo en cuestión de lenguas, sino también en otros ámbitos. Y cada vez encontramos más ejemplos así.]*

Jakina, legearen adostasuna beharrezkoa da, eta nik ondo ezagutzen dudana da Euskal Autonomia Erkidegoarena. 1982ko normalizazio legea, 1983ko elebitasun legea gaur, 35 urte eta gero, nik esango nuke onartua edo oso onartua dagoen lege bat izateak esan nahi du ez dagoela hain gaizki. Ez dago alternatiba hobearik. Horri hobekuntzak eta aldaketak egin dakizkioke, ez dut esaten ezetz, baina lege hori adostua eta onartua dago gizartean eta horrek lasaitasun handia edo bake sozial handia eman du eta aurrea egiteko aukera ere bai. Eta hori horrela dela erakusteko, hemen orain dela hamar bat urte egindako ikerketa baten datuak eskaintzen dizkizuet.

*[Claro, el acuerdo de la ley es necesario y la que yo conozco bien es la de la Comunidad Autónoma Vasca. Yo creo que el hecho de que la ley de normalización de 1982, la ley del bilingüismo de 1983, en la actualidad, 35 años después, esté aceptada o muy aceptada quiere decir que no está tan mal. No hay mejor alternativa. A esa se le pueden hacer mejorar y cambios, no digo que no, pero esa ley está muy aceptada en la sociedad y eso ha ofrecido una gran tranquilidad o una gran paz social y también la oportunidad de avanzar. Y para demostrar que eso es así, les muestro unos datos de una investigación realizada hace diez años.]*

Euskadiko erdaldunek, hau da, euskaraz ez dakitenek, zer uste dute edo zer pentsatzen dute euskarari buruz? Hori ikerketaren gaia zen. Ba horietatik, alegia, ez populazio osoaren ehuneko 88ak, baizik eta erderaz bakarrik hitz egiten duten horietatik ehuneko 88ak, pentsatzen du euren seme-alabek euskara ikasi beharko luketela. Esan nahi dut ez da guztiona, dena batera hartzen duena, baizik eta sektore batek, euskararen salto hori egin ez duen sektoreak ere, pentsatzen du bere seme-alabek beharko luketela. Hau da, badakizue pixka bat ereduak ere Euskadin aldatzen joan direla behartu gabe. Gurasoen eskaera eta demandari esker aldatu dira. Esan nahi dut, nahi dena esango da, baina inork ez dauka fundamentuzko argudiorik esateko aldaketa hori behartuta egin dela, baizik eta borondatez gurasoen nahiari erantzunez egin dela aldaketa. Lehen esaten nuen bezala, horrek ematen dio lege horri sendotasun handia, izan ere, ez da erraza kontu hauetan nolabaiteko adostasun orokorra eta eztabaidarik sortzen ez duena. Honek ez du esan nahi 1983an diseinatu ziren ereduak bere horretan mantentzen direnik. Hor, beste gauza askoren artean, ingelesa sartu da, ingelesa integratu da eta beste gauza asko ere egin dira.

*[Los castellanoparlantes de Euskadi, es decir, lo que no saben euskera, ¿qué es lo que creen o piensan sobre el euskera? Ese es el tema de la investigación. Pues de entre ellos,*



*es decir, no el 88 por ciento de toda la población, sino el 88 por ciento de los que solo hablan castellano piensa que sus hijos e hijas deberían aprender euskera. Quiero decir que no es de todo, que no toma a todos a la vez, sino que un sector, ese sector que no ha dado el salto hacia el euskera, piensa que sus hijos e hijas lo necesitarían. Es decir, ya saben que los modelos en Euskadi han ido cambiando sin obligarlo. Han cambiado gracias a la petición y demanda de los padres y madres. Quiero decir que será lo que quiera, pero que nadie tiene argumentos con fundamento para decir que ese cambio se ha hecho de manera obligada, sino que es un cambio que se ha dado voluntariamente, para responder al deseo de los padres y madres. Como decía antes, eso le da a la ley una gran fuerza ya que no es sencillo lograr un cierto acuerdo en estas cuestiones y que no cause polémicas.]*

Baina, oinarrian, gurasoen ehuneko 80 batek, edo hortik gora, uste du euskaraz gauzak ikasi daitezkeela nahiz eta horietako askorentzat, ehuneko 50 edo gehiagorentzat, euskara ez den etxeko hizkuntza. Beraz, nik ez dut esaten lege hau besteentzako eredugarria denik. Nik esaten dudana da legeek adostasun minimo bat baldin badute gauzak egin daitezkeela modu malguan, behartu gabe eta aurrerabidean helburu garbi bat edukita.

*[Pero en la base el 80 por ciento o más de los padres y madres cree que se puede aprender las cosas en euskera, aunque para muchos de ellos, el 50 por ciento o más, el euskera no sea la lengua de casa. Por lo tanto, yo no digo que esta ley sea un modelo para otros. Lo que yo digo es que si las leyes tienen un mínimo acuerdo las cosas se pueden hacer de manera flexible, sin imponer y con un objetivo claro de avance.]*

Honako hau beste ikerketa bat zen. Honetan erdaldunen jarrerak aztertu genituen ikerketa horretan. Ez dakit ikusten duzuen. Hiru multzo zeuden. Bazeuden nahiz eta erdaldunak izan, euskararen oso aldekoak zirenak, «bai, nik ez dut egin, baina oso ados nago» esaten dutenak. Beste batzuk «beno, ondo, ez da nire hizkuntza, segun gauza batzuetarako ondo». Beste batzuk, berriz, esaten zuten «euskara ez da nire hizkuntza, ez da nire mundua, nik ez daukat horrekin zerikusirik». Hiru multzo horietan, ikusten baldin baduzue, ilunena agertzen den hori, ados daudenak dira, ehuneko 88, bestea 64 eta bestea 34. Baina horiek denak elkartzen baldin badira, eguneko 80aren inguruan egiten du erdaldunen artean bere seme-alabei euskara irakasteko nahiak.

*[Esta fue otra investigación. Aquí estudiamos las actitudes de los castellanoparlantes. No sé si lo ven. Había tres grupos. Estaban los que, pese a ser castellanoparlantes, eran muy partidarios del euskera, los que decían «sí, yo no lo he hecho, pero estoy muy de acuerdo». Otros decían «bueno, bien, no es mi lengua según para qué cosas». Otros, en cambio, decían «el euskera no es mi lengua, no es mi mundo, yo no tengo nada que ver con eso». En esos tres grupos, si lo ven, ese que aparece más oscuro son los que están a favor, el 88 por ciento, el otro el 64 y el otro el 34. Pero si se juntan todos ellos, ronda el 80 por ciento el deseo de los castellanohablantes para que enseñen a sus hijos e hijas en euskera.]*

Irakaskuntza eleanitza eta euskara tartean duena: zertarako, zergatik eta nola? Zergatik? Arrazoi asko daude, noski. Gure gaitasun kognitiboak hobeto garatzen direla demostratua dagoelako, sozializazio aberatsagoa eskaintzen duelako elebitasunak dagoeneko eta

eleaniztasunak are eta gehiago. Hau da, besteen lekuan jartzeko aukera gehiago, hezitze aberatsago eta sentsibleago edo sentiberagoa bideratzen du. Diskriminazioa saihesteko ere bada. Gero, gure nortasuna adierazteko eta euskararen desagertzea galarazteko. Horrekin ardura bat daukagu. Euskara ez badugu guk defendatzen eta guk ez baldin badiogu eusten, beste inork ez du eutsiko. Ingelesa, espainola edo frantsesaren kasuan, hiztun bakoitzaren ardurak ez dauka hainbesteko garrantzirik. Hor daude hainbat instituzio horren alde eta hori defendatzeko daudenak.

*[Enseñanza plurilingüe y que tiene dentro el euskera: ¿por qué, para qué y cómo? Hay muchas razones, por supuesto. Porque está demostrado que se desarrollan mejor nuestras capacidades cognitivas, porque el bilingüismo ofrece socializaciones más ricas y aún más el plurilingüismo. Es decir, más oportunidades de ponerse en el lugar de los otros, conduce hacia una educación más rica, sensible y sentimental. También sirve para evitar la discriminación. Luego, para expresar nuestra identidad y para evitar la desaparición del euskera. Con eso tenemos una responsabilidad. Si no defendemos nosotros el euskera y si nosotros no lo mantenemos, nadie más lo mantendrá. En el caos del inglés, español o francés, a responsabilidad de cada hablando no tiene tanta importancia. Ahí hay muchas instituciones para apoyar esas lenguas y defenderlas.]*

Baina euskararen kasuan euskaldunok edo euskararen inguruan sentitzen garenok zuzenean edo zeharka ez badugu zaintzen... Hori horren aurrean ardura bat da. Hizkuntza galtzen utzi dute. Hori da maila biologikoan edo beste edozein mailan, ondareen beste mailetan, bere ondarea zaindu ez duen norbait bezala ulertu behar da. Hori ere uste dut inportantea dela jakitea. Esan nahi dut ez garela guretzako bakarrik altxor bat edo ondare bat mantentzen ari, baizik eta mundu osorako baliagarria den ondare baten defentsa egiten ari gara. Esango duzue nik, euskaldun bezala, hori egiteko, niretzat oso erraza eta beharrezkoa dela. Baina uste dut nire inguruan eta Euskal Herrian, Nafarroan eta Iparraldean bizi direnek ardura hori bere gain ere hartu beharko luketela.

*[Pero en el caso del euskera, si no lo cuidamos los vasco parlantes o los que nos sentimos alrededor del euskera... Es una responsabilidad frente a ello. Han dejado que se pierda la lengua. Eso hay que entenderlo como alguien que no ha cuidado su patrimonio a nivel biológico o cualquier otro nivel, otros niveles de patrimonio. Creo que también es importante saber eso. Quiero decir que no estamos manteniendo un tesoro o patrimonio solo para nosotros, sino que estamos realizando una defensa de un patrimonio que es beneficioso para todo el mundo. Dirán que lo haga yo, como vasco parlante, que para mí es muy fácil y necesario. Pero yo creo que los que están a mi alrededor y los que viven en el País Vasco, en Navarra y en Iparralde tendrían que adquirir esa responsabilidad.]*

Eta nola da posible hori? Gauza bat da oso helburu ederrak eta nahi baduzue oso helburu puntu batean utopia txiki edo handi batekin, segun nondik begiratzen den, proposatzea. Baina hori nola egiten da?

*[¿Y eso cómo es posible? Una cosa es proponer puntos preciosos y si quieren en una pequeña o gran parte con utopía, según cómo se mire. ¿Pero eso cómo se hace?]*

Ez dakit zenbat denbora daukadan. Oraindik denbora daukat, ezta?

*[No sé cuánto tiempo tengo. Todavía tengo tiempo, ¿verdad?]*

Orduan, hemen laburbildu ditut pixka bat arrazoi horiek, lehen ere esaten etorri naizen horiek. Zergatik da euskara barne hartzen duen eredu eleanitza beharrezkoa? Nolabait euskararen biziberritze hori bultzatzeko, horren alde egiteko, biologia aniztasuna defendatzen dugun bezala, hizkuntza aniztasuna ere defendatu beharra daukagulako. Munduak hemen egiten duguna kontuan har dezan eta ikus dezan gauza hauek egiteko gauza garela erakustea. Bada beste arrazoi bat ere, gutxitan apatzen dena, baina nik bizitza osoa daramat honi begiratzen eta hau aztertzen. Seguru aski zuek ere badauzkazue horrelako adibideak. Nolabait dela euskara sartzen den eskola eta eskola batek erabakitzen badu euskaraz irakastea, esan dezagun D eredua edo dena delakoa egiteko erabakia hartzen baldin badu eta ordura arte, aldiz, gaztelania hutsez ari zen eskola bat izan, horrek ez du bakarrik euskararen irakaskuntzan aurrerapenak ekartzen. Horrek sistema osoan ekartzen ditu hobekuntzak.

*[Entonces, aquí he resumido un poco esas razones, esas que antes he venido diciendo. ¿Por qué es necesario un modelo plurilingüe que incluya el euskera? Para impulsar de algún modo ese revivir del euskera, para apoyarlo, porque al igual que defendemos la pluralidad biológica, también tenemos que defender la pluralidad lingüística. Para que el mundo tenga en cuenta lo que hacemos aquí y demostrar para que vea que aquí somos capaces de hacer estas cosas. También hay otra opción, que se nombra en pocas ocasiones, pero que yo llevo toda la vida observando y analizando. Seguro que ustedes también tienen ejemplos así. En cierto modo es que las escuelas en las que se introduce el euskera y si una escuela toma la decisión de introducir el modelo D o de hacer algo así, y si hasta ahora era una escuela en la que solo se hablaba castellano, eso no solo trae avances en la enseñanza del euskera. Eso trae beneficios a todo el sistema.]*

Hau ikustea oso erraza da. Oso erraza da. Ni atzo pelukeriara joan nintzen, noski, hona etorri behar nintzen. Pixka bat nire burua txukuntzeko ideiarekin pelukerorekin hitz egiten nengoen. Berak bi alaba ditu, lau eta zazpi urtekoak. Berak ez daki euskaraz, baina alabak B eredua egiten duen ikastetxera batera bidali du eta galdetu zidan «¿qué haces? ¿Adónde vas?». Eta nik erantzun: «Pues me voy a Navarra, que voy a hablar del euskera». «Ah, ¿sí?». Ez dugu sekulan ere hitz egin elkarrekin, baina atzo horrela tokatu zen. «Pues acabo de llevar ahora a las hijas. No lo sabes, pero cuando yo iba a la escuela no pude. Solamente había un modelo A y aprendí unas cuentas cosas. Mi marido sabe un poquito más. Pero claro, es que con mis hijas, para ayudarles en los trabajos de casa me vuelvo loca. ¡Y no sabes cómo me corrige! Porque yo le digo unas cosas y ella otras». Eta esan nion: «pero, ¿tú pasas muchas horas con tus hijas intentando ayudarles a hacer los trabajos? Tú no sabes, pero puedes pedir ayuda, puedes pedir a los profesores que te den libros». Eta berak esan zidan: «Sí, y no sabes. Yo ni me acordaba de lo que había aprendido y ahora me estoy aprendiendo los nombres de las partes de las flores, del cuerpo y más. Me estoy aprendiendo todo en euskera. tampoco sabía muy bien cómo eran en castellano, pero de paso me los estoy aprendiendo».

*[Esto es muy fácil de ver. Es muy sencillo. Yo ayer fui a la peluquería, claro, tenía que venir aquí. Con la idea de arreglar un poco mi cabeza estaba hablando con la peluquera. Ella tiene dos hijas, de cuatro y siete años. Ella no sabe euskera, pero ha mandado a sus hijas a una escuela que tiene modelo B y me preguntó «¿qué haces? ¿Adónde vas?». Y yo*

*le respondí «Pues me voy a Navarra, que voy a hablar del euskera». «Ah, ¿sí?». Nunca habíamos hablado, pero ayer tocó así. «Pues acabo de llevar ahora a las hijas. No lo sabes, pero cuando yo iba a la escuela no pude. Solamente había un modelo A y aprendí unas cuentas cosas. Mi marido sabe un poquito más. Pero claro, es que con mis hijas, para ayudarles en los trabajos de casa me vuelvo loca. ¡Y no sabes cómo me corrige! Porque yo le digo unas cosas y ella otras». Y le dije: «pero, ¿tú pasas muchas horas con tus hijas intentando ayudarles a hacer los trabajos? Tú no sabes, pero puedes pedir ayuda, puedes pedir a los profesores que te den libros». Y ella me dijo: «Sí, y no sabes. Yo ni me acordaba de lo que había aprendido y ahora me estoy aprendiendo los nombres de las partes de las flores, del cuerpo y más. Me estoy aprendiendo todo en euskera. tampoco sabía muy bien cómo eran en castellano, pero de paso me los estoy aprendiendo».]*

Hori egiten duzunean irakaskuntzak aberasteko eta hobetzeko baliabide bat sartzen du, gurasoak derrigorrez inplikatzeari ekartzen du. Edo bestela esaten duzu «hor konpon». Baina gurasoak ardura bat baldin badute, nahiz eta berak euskara oso ondo ez jakin, edo apenas ez jakin, «hoy he estado con el profesor y me dice que sí, que entiende muy bien, que todavía le cuesta un poco soltarse, pero que está entendiendo muy bien». Gauza horiek guztiak ez dira gertatzen eskola batean erdera hutsea egiten duen eskola baldin bada. Eta hori hezkuntzaren kalitatea da. Horrek hezkuntza goitik behera aldatzen du. Ez da bakarrik hizkuntza bati buruz gauzak ikasteak. Horrek esan nahi du guraso eta irakasle eta ikasleen arteko harreman horiek estutu eta elkarrekin gauza gehiago egiteko aukera ematen duela. Horregatik esaten denean irakaskuntza eleanitzean euskara bezalako hizkuntza gutxitu bat tartean sartzen duzunean lan konplexuagoa dela, baina lan horrek inplikazio askoz handiagoak sortzen ditu komunitate horren barruan, batez ere ardura minimo batekin egiten baldin bada. Horretarako ez da izan behar unibertsitateko irakaslea. Esan dizuedan bezala, adibidea da atzo nire pelukeroarekin hitz egin nuena. Eta berak kontatzen zizkidan zer gauza egiten zituen bere alabarekin, hain zuzen ere. Euskaraz berak gutxi jakinda ere, alabaren lanak egiten lagundu nahi zuela eta bere gizonari galdetzen ziola «a ver, tú que sabes más dime esto». Hori ez da gertatzen erdera hutsean egiten denean.

*[Cuando haces eso la enseñanza introduce un recurso para enriquecer y mejorar, conlleva que los padres y madres se impliquen obligatoriamente. O si no dices «allá ellos». Pero si los padres y madres tienen una responsabilidad, aunque no sepan muy bien euskera, o casi no lo sepan, «hoy he estado con el profesor y me dice que sí, que entiende muy bien, que todavía le cuesta un poco soltarse, pero que está entendiendo muy bien». Todas esas cosas no pasan cuando una escuela es una escuela que solo se habla en castellano. Y eso es la calidad de la educación. Eso cambia la educación de arriba abajo. No es solo aprender cosas sobre un idioma. Eso quiere decir que brinda la oportunidad de estrechar esas relaciones ente padres y madres y profesores y estudiantes y de hacer más cosas conjuntamente. Por eso cuando se dice que cuando introduces una lengua minoritaria como es el euskera en una educación plurilingüe el trabajo es más complejo, pero ese trabajo crea unas implicaciones mayores dentro de esa comunidad, sobre todo si se realiza con una mínima responsabilidad. Para eso no hay que ser profesor de universidad. Como les he dicho, el ejemplo es lo que hablé ayer con mi peluquera. Y ella me contaba qué cosas hacía con su hija, concretamente. Pese a*

*saber poco euskera, quería ayudar con los deberes de su hija y le preguntaba a su marido «a ver, tú que sabes más, dime esto». Eso no ocurre cuando se hace solamente en castellano.]*

Eta irakasleekin ere frogatua dago irakasle batek baldin badaki ikasleak hizkuntza ez duela oso ondo menderatzen, arreta gehiago jartzen dio ume horri: «ulertu didazu?» galdetzen dio. Bestela, berriz, ulertutzat ematen da eta aurrera egiten da. Eta hau zientifikoki ikerketetan ikusten da. Murgilketa bidez irakasten denean, murgilketak baditu onura horiek, askoz ere arreta pertsonal hori intentsiboagoa egiten du. Eta behar du. Nik askotan galdetu diot nire buruari: «Baina ikasle honek euskaraz nahiko gaizki egiten du. Nola da posible hain nota onak ateratzea? Edo selektibitatean hain nota onak ateratzea euskararen aldetik oraindik nahiko parral baldin badabil?» Beste estrategia batzuk garatzen dira zorionez edo halabeharrez batez ere idatzian garatzen dituzte askotan etxetik euskaldunak ez direnak, baina hala eta guztiz ere, ezagutzen garapenean ez dago atzerapenik, baizik eta aurrerapenak. Bestela lortzen ez diren aurrerapenak.

*[Y con los profesores también está probado que si un profesor sabe que el alumno no controla mucho el idioma le pone más atención a ese alumno. Le pregunta: «¿me has entendido?». Si no, en cambio, se da por comprendido y sigue adelante. Y eso se ve científicamente en las investigaciones. Cuando se enseña en inmersión, la inmersión tiene esas ventajas, hace esa atención mucho más intensiva. Y lo necesita. Yo muchas veces me he preguntado: «Pero si este alumno habla bastante mal euskera. ¿Cómo es posible que saque tan buenas notas?» ¿O que saque tan buenas notas en selectividad si todavía está verde en el tema del euskera?». También se dan otras estrategias por suerte o azar, los que no son vasco parlantes de casa muchas veces lo muestran por escrito, pero, aun así, no hay retraso en el desarrollo de conocimientos, sino avances. Avances que no se logran de otra forma.]*

Jarraitu egingo dut. Ikusten duzuen bezala, gaiak jartzen nau, edo horrelako zerbait esaten da. Esan nahi dudana da eginkizuna erronka bat dela, zaila dela. Baina, nolabait inplikazio zuzena eskatzen duenez, hortik derrigorrez gauza onak edo alderdi positiboak ateratzeko aukera asko daude.

*[Continúo. Como ven, el tema me enciende, o algo parecido se dice. Lo que quiero decir es que la tarea es un desafío, es difícil. Pero como pide de algún modo una implicación directa, de ahí hay muchas posibilidades de sacar cosas buenas o aspectos positivos.]*

Nola lortu? Lehen ere esan dut. Helburuak ongi bereizi eta adostu. Hori inportantea da. Gurasoek jakin behar dute zertan sartzen diren. Bai, nik euskaraz ikastea nahi dut eta agur. Ez, zuk euskaraz ikastea nahi baldin baduzu eta zure hizkuntza ez baldin bada, zuk hor ordu gehiago sartu beharko dituzu, galdera gehiago egin beharko dituzu, zerbait inplikatu behar duzu. Hori ez da berez. Gaztelania eta ingelesa ikasteko ziztagarriak edo estimuluak daude alde guztietan. Eta sortea daukagu. Erdera oso erraz ikas dezakegu eta bada hizkuntza bat gehiago ikasteko primeran etortzen zaigu. Gaztelera ez dugu ukatzen eta ez diogu ezetz esaten. Baina hori ikasteko hainbeste estimulu eta hainbeste okasio eta hainbeste lagungarri ditugunez, eskolan lagungarririk ez dituen edo lagungarri gutxi dituen hori egiteko aukera ematen zaigu.

*[¿Cómo lograrlo? Lo he dicho antes. Hay que escoger y acordar bien los objetivos. Eso es importante. Los padres y madres tienen que saber en qué se están metiendo. Sí, yo quiero que estudien en euskera y adiós. No, si usted quiere que aprendan en euskera y si no es su lengua, usted tendrá que meter más horas, tendrá que hacer más preguntas, tendrá que implicarse algo. Eso no se da por sí mismo. Por todas partes hay estímulos para aprender castellano e inglés. Y tenemos suerte. El castellano lo podemos aprender muy fácilmente y nos viene muy bien para aprender otra lengua más. No negamos el castellano y no le decimos que no. Pero como tenemos tanto estímulo y tantas ocasiones y tantas ayudas para aprenderlo, que en la escuela se nos da la oportunidad de hacer esa lengua que no tiene ayudas o tiene pocas.]*

Horregatik helburuak garbi jarri eta adostu. Eskolan baliabide fidagarriak erabili behar ditugu. Horrelako eskolak egin nahi baditugu, ezin da borondate onez eta ahal duguna egingo dugu eta ea ezer lortzen dugun. Horrek ez digu balio. Gauzak zehaztasunez eta fidagarritasunez, «con rigor» esaten denarekin egin behar dira. Ezin dugu irakaskuntza eleanitza borondate onezko gauza bat bezala egin. Hor gauzak ondo egin behar dira. Horregatik lehen esan dut horrek eskola goitik behera hobetzen duela, ez bakarrik hizkuntza gehiago ikastea.

*[Por eso hay que decir claramente cuáles son los objetivos y acordarlos. En la escuela tenemos que utilizar recursos fidedignos. Si queremos construir escuelas así, no se puede solamente con buena voluntad y vamos a hacer lo que podamos y a ver qué conseguimos. Eso no nos vale. Las cosas hay que hacerlas con precisión, con fiabilidad, con rigor. No podemos hacer la educación lingüística como una cosa con buena voluntad. Ahí las cosas hay que hacerlas bien. Por eso antes he dicho que eso mejora la escuela de arriba abajo, no solamente aprender más lenguas.]*

Komunitatea ados egon behar da, inplikaturik egon behar da. Irakasleak izugarritzko ardurak eta garrantzia du. Irakasleak ez baldin badu bere gain hartzen eginkizun hau, oso zaila da. Oso zaila da. Irakasleak, askotan, eta nik euskalduntze prozesuaren hasierako urteak ezagutu nituen, baziren irakasle asko orduan oraindik euskararen erdipurdika zebiltzanak. Haien zeukaten entusiasmoa, gogoak eta inplikazio horri esker euskalduntze prozesu horrek oso aurrera egitea lortu zuen.

*[La comunidad tiene que estar de acuerdo, tiene que estar implicada. el profesor tiene una responsabilidad e importancia enorme. Si el profesor no asume esta tarea, es muy difícil. Es muy difícil. Los profesores muchas veces, y yo conocí los primeros años del proceso de euskaldunización, había muchos profesores que todavía estaban a medias con el euskera. Ese proceso de euskaldunización pudo avanzar mucho gracias al entusiasmo, a las ganas y a esa implicación de los profesores.]*

Gero, nolabait gizartearen arrakasta bezala erakutsi behar dugu eta horren harrotasuna gizarte osoak ikusi behar du. Ez da bakarrik eskola honetan egiten ari direna, baizik eta eskola honetan egiten ari diren hori gizarte osoak bere egiten duen heinean, horrek balio indartua lortzen du. Gero, esaten dut, lehen ere esan dudak bezala, lan konplexua eta emozionala nolabait sedukzio balio askorekin egin behar dela. Zuek imajina ezazue hiru edo lau urteko umetxoekin, etxetik erdera besterik ez dakiten horiekin, eta euskararekin nahiz beste hizkuntzekin izan daiteke, baina euskararekin irakasleak nola jokatzen du hor ez bada bere gaitasun

emozionalekin? Badaki ez diola dena ulertzen, baina ulertarazteko egin behar dizkion gauza horiek guztiak, keinuak, hurreratzeak, heltzeak, irribarreak, horrek guztiak eramaten du haurrak irakasle horrekin lotura bat sortzea eta hor sortzen da hizkuntza eta horrela ikasten da hizkuntza. Zurea ez den hizkuntza horrela ikasten duzu. Zure lehenengoa ere ama, aita edo dena delakoarekin harremana ikasten duzun bezala, bestea ere horrelaxe ikasten duzu, eta hori ez da besterik gabe ezagutza formal handia, euskararen ezaugarri formal guztiak ondo jakitea, baizik eta behar duzun profesio horrek eskatzen duen gaitasun emozional, sedukzioa nahi baldin baduzu, izatea. Bestela hizkuntzak ez dira ikasten. Eta hizkuntza hauek eta zurea ez den hizkuntza bat ikasteko hori irakasleak bere gaitasun profesionalen artean izan behar du. Eta hori nola lortzen da? Eta hori nola neurtzen da? Gauza asko esango dizkidazue. Gauza asko dauzkagu egiteko, baina beharrezkoa dela ez dut uste inork ukatuko duenik.

*[Luego, tenemos que mostrarlo como un éxito de la sociedad y toda la sociedad tiene que ver el orgullo de ello. No es solo lo que estén haciendo en esta escuela, sino que en la medida en la que toda la sociedad haga suyo eso que estén haciendo en esa escuela, eso consigue un valor reforzado. Luego digo, como he dicho antes, que el trabajo complejo y emocional hay que hacerlo con muchos valores de seducción. Imaginen ustedes con los niños de tres o cuatro años, con esos que de casa solo saben castellano, y puede darse con el euskara pero también con otras lenguas, pero ¿con qué juega el profesor respecto al euskera si no es con su capacidad emocional? Sabe que no le comprende todo, pero todas esas cosas que hace para hacerse entender, como los gestos, los acercamientos, las ayudas, las sonrisas, todo ello lleva a que se cree una conexión con el profesor y ahí se crea la lengua y así se aprende la lengua. Así aprende uno la lengua que no es suya. Al igual que se aprende la primera lengua con esa relación con la madre, el padre o quien sea, la otra se aprende así, y eso no es simplemente un conocimiento formal, saberse todas las características formales del euskera, sino tener esa capacidad emocional, seducción si quiere, que pide esa profesión. Si no las lenguas no se aprenden. Y esto lo tiene que tener el profesor entre sus capacidades profesionales para aprender estas lenguas y una lengua que no sea la propia. ¿Y eso cómo se consigue? ¿Y eso cómo se mide? Me dirán muchas cosas. Tenemos muchas cosas por hacer, pero no creo que nadie niegue que es algo necesario.]*

Eta, jakina, euskara eta ingelesaren artean ez naiz eztabaidatzen hasiko. Ingelesak askoz ere aldekoagoak dauzka agerian. Edonon, publizitate batean, Interneten eta abar. Ingelesa hor daukagun hizkuntza da. Euskara zerbait poliki-poliki agertzen da, baina oraindik ez dauka presentzia hain handirik. Euskarak beste balio sakonago batzuk dituela uste dugu eta ikerlariek horrela esaten digute ikerketetan. Erdaldunen euskararekiko jarrera horietan ikusten genuen bezala, baziren batzuk esaten zutena ez zutela euskara ikasi, «yo no he aprendido euskera, aunque algo entiendo y sé que me pierdo gran parte de la historia, pero no puedo». Euskarak baditu beste balio batzuk ere. Ez dira balio instrumental hutsak, beste balio batzuk ere badira eta horiek ezin ditugu ahaztu. Hor dauzkagu. Eta gure heziketa sistemari hor kontuan hartu behar ditugu.

*[Y, por supuesto, no voy a debatir entre el euskera y el inglés. Al parecer el inglés tiene muchos más a favor. En cualquier parte, en una publicidad, en Internet, etcétera. El inglés es una lengua que tenemos ahí. El euskera aparece algo poco a poco, pero todavía*

*no tiene una presencia tan grande. Creemos que el euskera tiene otros valores más profundos y así lo dicen los investigadores en las investigaciones. Como veíamos en esas actitudes de los castellanoparlantes hacia el euskera, había algunos que decía que no habían aprendido euskera: «yo no he aprendido euskera, aunque algo entiendo y sé que me pierdo gran parte de la historia, pero no puedo». El euskera tiene también otros valores. No son simples valores instrumentales, hay otros valores y esos no los podemos olvidar. Los tenemos ahí. Y los tenemos que tener en cuenta en nuestro sistema educativo.]*

Hemen egin dut horrelako laburpen bat eta erderazko zerrenda jarriko dut. Ni orain dela ia 50 urte hasi nintzen euskara irakasten. Zer egiten nuen nik ere ez nekien. Hori zen zoroek bakarrik euren eskuetan hartzen zuten zerbait. Hori esaten zidaten: «baina nola da posible euskaraz irakastea? Euskara ez da inoiz idatzi. Ezin da eskola euskaraz egin». Garai horretan baziren baldintza batzuk. Orduan, elebidunak ginenak, etxetik euskaldunak eta eskolatik erderaz ikasitakoak ginenak, beti ginen elebidunak. Alegia, elebitasuna nolabait arazoa zen, «el problema del bilingüismo». «Bilingüismo» eta «problema» bat ziren. Gaur uste dut, eta ez dut uste exageratzen dudarik, arazoa elebakartasuna dela. Aldatu egin dugu elebakar ideal hura. Gaur elebakar izatea hobe luke beste hizkuntza bat ere jakingo balu. Jende askori esaten zaio. Seguru aski Donald Trumpek ez du horrelakorik burutik pasatu ere egingo, baina ez dut uste Donald Trump gure eredu denik. Bera, Estatu Batuetan edo oso gizarte elebakar dominante batean elebakarrak oraindik indar handiena bere gain baldin badute ere, gero eta gehiago, eta gizarteak onartua dauka hori, elebitasun edo eleaniztasuna da aurrerakoia, eta ez elebakartasuna.

*[Aquí he hecho una especie de resumen y voy a poner la lista en castellano. Yo empecé a enseñar euskera hace casi 50 años. Ni yo sabía lo que hacía. Eso era algo que solo tomaban entre manos los locos. Eso me decían: «pero, ¿cómo es posible enseñar en euskera? El euskera no se ha escrito nunca. No se puede dar la clase en euskera». En aquella época había algunas condiciones. Entonces, los que éramos bilingües los que éramos vascoparlantes de casa y aprendimos el castellano en la escuela, siempre éramos bilingües. Es decir, el bilingüismo era en cierto modo un problema, el problema del bilingüismo. «Bilingüismo» y «problema» eran uno. En la actualidad creo, y creo que no estoy exagerando, que el problema es el monolingüismo. Hemos cambiado ese ideal de monolingüismo. Hoy en al monolingüe más le valdría saber otro idioma. Se le dice a mucha gente. Seguro que a Donald Trump no se le pasa por la cabeza algo así, pero tampoco creo que Donald Trump sea nuestro modelo. Si él, los Estados Unidos o en una sociedad en la que el monolingüismo es dominante los monolingües cargan todavía la mayor fuerza, cada vez más, y la sociedad lo tiene aceptado, el bilingüismo o el plurilingüismo es avanzado y no el monolingüismo.]*

Eskolan garai batean, gure garaian, ez zen galdetzen. Hizkuntza bat, bakarra, nazionala dena, besterik ez zegoen eta hori irakatsi behar zen. Baina gero gauzak berritzen hasi zirenean esan ziguten ezetz, bakoitzak bere hizkuntzan ikasi behar zuela. Eskola ama-hizkuntzan edo lehen hizkuntzan egin behar da. Eta hau hasiera batean iruditzen zaizu ezinbesteko baldintza dela. Etxeko hizkuntzan haurtxoa ereman behar duzu eskolara eta han hizkuntza horrekin jarraitu behar duzu ordu horietan etenik gerta ez dadin eta gauza horiek denak. Eta guri esaten



zigutenean «bai, baina hau erdaldunekin erderaz jarraitzen baldin badugu, ez dute euskara ikasiko». Eta orduan esaten genuen: «irakasleak badaki erdaraz, beraz, haur honek nahiz eta nik euskaraz egin, ikusten badut ez duela ulertzen erdaraz egingo diot». Eta horrela hasi ginenean pixka bat euskaraz, nahiz eta etxetik erdaldunak izan, irakasten.

*[En una época en la escuela, en nuestra época, no se preguntaba. Solo había una lengua, única, la nacional, no había nada más y se enseñaba esa. Pero luego cuando empezaron a reformarse las cosas nos dijeron que no, que cada uno tenía que aprender en su lengua. La escuela hay que hacerla en la lengua materna o en la primera lengua. Y eso a priori le parece que es una condición imprescindible. Tiene que llevar al niño a una educación en la lengua de casa y ahí tiene que seguir con esa lengua sin que haya una pausa durante esas horas y todas esas cosas. Y cuando nos decían: «sí, pero si seguimos hablando en castellano a los castellanoparlantes no aprenderán euskera». Y entonces decíamos: «el profesor sabe castellano, por lo tanto, si este niño, aunque yo le hable euskera, si veo que no entiende le hablo en castellano». Y así empezamos a enseñar un poco el euskera, aunque fueran castellanoparlantes de casa.]*

Gaur egun hori oso garbi daukagu. Etxetik hizkuntza handi bat duena ez da diskriminatua sentitzen eskolan beste hizkuntza bat egiten diotelako. Etxetik dakarren hizkuntza gutxitua baldin bada orduan bai, zergatik hizkuntza hori ez da inondik ere agertzen. Baina bere hizkuntz nagusia bada, espainolez egiten duela eman dezagun, ikusten hizkuntza hori denerako baliagarria daukala hor, eskolan egoera berezi horrek eskatzen dio edo ahalbidetzen dio beste hizkuntza bat aldi berean ikastea, etxeko hizkuntza eta eskolako hizkuntza segun eta. Etxekoa txikia bada bai, derrigorrez, besterik ez dauka hizkuntza hori garatzeko eta hori inportantea da. Baina etxeko hizkuntza handia bada, ez dauka eskolaren beharrik, eskola gabe ere garatzen du.

*[Hoy en día eso lo tenemos muy claro. Quien tiene de casa una lengua grande no se siente discriminado porque en la escuela le hablen en otra lengua. Si la lengua que trae de casa es la minoritaria entonces sí, porque esa lengua no aparece por ningún lado. Pero si su lengua es la mayoritaria, digamos que habla en español, viendo que esa lengua es útil para todo, en la escuela esa situación especial le pide o le permite aprender otra lengua al mismo tiempo, la lengua de casa y la de la escuela dependiendo del caso. Si la de casa es la minoritaria, obligatoriamente, ya que no tiene otra forma de desarrollar esa lengua y eso es importante. Pero si la de casa es la mayoritaria, no necesita la escuela, también la desarrolla sin la escuela.]*

Eta horren frogak bertan dauzkagu. Beraz, hori aurrerapen didaktiko handia izan da. Orain dela 30 edo 30 eta piku urte ni Bartzelonan nengoen eta katalanek esaten zidaten: «vosotros los vascos sois unos brutos, cogéis a los niños y los ponéis en euskera. Nosotros cogemos un grupo, el de los catalanohablantes, y hablan en catalán y el de los castellanohablantes en castellano. Tenemos las clases cada uno en su lengua». Hori hortik hamar urtera aldatu egin zuten zeren Katalunian ikusi zuten katalanez eginda katalana ikasiko ez lukeen jende asko ikasi zutela. Bestela, bi talde oso banatuak gertatuko zirela. Hango egoera hori, han denentzat dena katalanez egitea, beharrezkoa ikusi zuten, gaztelania galdu gabe, beste hizkuntza ikasteko aukera ematen zuelako. Gurean beste modu batetara egin genuen. Etxeko hizkuntza edo

eskolako hizkuntza, derrigorrez ez, etxekoa hizkuntza handia bada. Hau ñabardura inportante bat da.

*[Y las pruebas de ello las tenemos ahí. Por lo tanto, eso ha sido un avance didáctico grande. Hace 30 años o 30 y pico años, yo estaba en Barcelona y los catalanes me decían: «vosotros los vascos sois unos brutos, cogéis a los niños y los ponéis en euskera. Nosotros cogemos un grupo, el de los catalanohablantes, y hablan en catalán y el de los castellanoahablantes en castellano. Tenemos las clases cada uno en su lengua». Eso cambió al de diez años porque en Cataluña vieron haciéndolo en catalán, mucha gente que no aprendería catalán lo aprendía. Si no, quedarían dos grupos muy separados. Esa situación de allí, el hecho de hacerlo todo en catalán, lo vieron necesario porque daba la oportunidad de aprender otra lengua, sin perder el castellano. Nosotros lo hicimos de otra forma. La lengua de casa o la lengua de la escuela, no de forma obligatoria si la de casa era la mayoritaria. Este es un matiz importante.]*

Beste aurreiritzi edo hizkuntzen irakaskuntzan urte askotan egon dena da hizkuntzak ezin direla nahastu. Hizkuntza bakoitza gauza bakoitzerako eta ahal bada hizkuntza bat, irakasle bat izatea. Bestela, zer gertatzen da? Hizkuntzak nahastu egiten dira, interferentziak agertzen dira. Ez da ona hizkuntzak nahastea. Beraz, hizkuntzak bereizita ikasi behar dira ondo ikasteko. Hori ere gainditua daukagu erabat. Gainditua daukagu elebidunok gure bizitzan etengabe egiten duguna behingoz onartzea zer ari garen egiten, zer egiten dudan nik hemen. Irakurtzen dut erderaz dagoena eta hitz egiten dut euskaraz. Eta hizkuntza batetik bestera saltatzen dut. Batzuetan ideia bat etortzen zait burura hizkuntza batean eta gero bestera pasatzen dut. Elebidunak edo eleanitzak etengabe ari gara hizkuntzak aldi berean erabiltzen. Ba irakaskuntzak hori ere bere egin behar du. Ez du esan nahi nonahi, edozelan eta ezer begiratu gabe jendeari utzi behar zaionik. Bestela, badakigu hizkuntza nagusiena, gehien entzuten dena, agertuko litzatekeela eta ez besterik. Baina horrekin lan egin behar dugu eta horri probetxua atera behar diogu. Badira adibide gehiago ere.

*[Otro prejuicio que ha habido durante muchos años en la enseñanza de idiomas es que los idiomas no se pueden mezclar. Cada idioma para una cosa y si se puede, que cada lengua tenga un profesor. Si no, ¿qué ocurre? Que se mezclan los idiomas, que aparecen interferencias. No es bueno mezclar lenguas. Por lo tanto, las lenguas hay que aprenderlas diferenciadas para aprenderlas bien. Eso también lo tenemos completamente superado. Tenemos superado que los bilingües por fin aceptemos lo que hacemos continuamente en nuestras vidas, lo que hago yo aquí. Leo lo que está en castellano y hablo en euskera. Y salto de una lengua a otra. A veces me viene una idea a la cabeza en una lengua y luego paso a la otra. Los bilingües o plurilingües estamos continuamente utilizando lenguas al mismo tiempo. Pues la educación también tiene que hacer suyo eso. Eso no quiere decir que haya que dejárselo a la gente en cualquier parte, de cualquier forma y sin mirar nada- Si no, ya sabemos que aparecería únicamente la lengua mayoritaria, la que más se oye. Pero tenemos que trabajar con eso y sacar provecho de ello. También hay otros ejemplos.]*

Pare bat minutu gehiago?

*[¿Un par de minutos más?]*

Nik uste dut hizkuntzen irakaskuntzan benetan aurrerapen asko egin ditugula eta horiek ondo datozkigu eta horiek denak, edo asko, ikasi ditugu, hain zuzen ere, irakaskuntza eleanitza martxan jartzerakoan. Guk eta gu bezala mundu honetan lanean ari direnak. Beraz, behar ditugu, jakina, eginkizun konplexua dugulako esku artean.

*[Creo que hemos avanzado mucho en la enseñanza de lenguas y esos avances nos han venido bien y todos ellos, o muchos, los hemos aprendido concretamente al poner en marcha la enseñanza bilingüe. Nosotros y los que al igual que nosotros están trabajando en este mundo. Por lo tanto, los necesitamos, por supuesto, porque tenemos entre manos una tarea compleja.]*

Eztabaidarako asko dago. Pentsatzen dut zuei ere etorriko zaizuela. Nik, nire ikuspuntutik, laburbilduz esango nuke nire ustez benetan Nafarroako hezkuntzan euskara Nafarroa osoan integratzeak sekulako aberastasuna eta sekulako izen ona emango liokela beretzako, hizkuntza kalitaterako, denetarako. Hori bai, ez dut esaten derrigorrez D eredu denentzako. Euskadin ere ez naiz horren aldekoa inoiz izan. Ez dut uste eredu bakarria, denontzat berdina, ezertarako balio duenik. Hori ez da ona. Guretzako eraman dugun bidea malguagoa izan da eta benetan borondatez edo demandaren arabera egindako aldaketa askoz ere indartsuagoa eta aberatsagoa da.

*[Hay mucho para el debate. Creo que a vosotros también os llegará. Yo resumiendo diría, desde mi punto de vista, que creo que la integración del euskera en la educación en toda Navarra le traería una inmensa riqueza y un buen nombre para sí mismo, para la calidad de la educación y para todo. Eso sí, no digo que haya que poner el modelo D para todos. En Euskadi tampoco he sido nunca partidaria de ello. No creo que un único modelo, igual para todos, sirva para algo. Eso no es bueno. El camino que nosotros hemos recorrido ha sido más flexible y el cambio realizado con voluntad y según la demanda es mucho más fuerte y enriquecedor.]*

Uste dut irakaskuntza eleanitzak euskara bezalako hizkuntza gutxitu bat barne hartzen duenean erronka konplexuagoa duen arren, batzuk esango dute zailagoa egiten duen arren, ez dut uste horri uko egiterik daukagunik. Eta, gainera, ez zaigu komeni inondikan ere, ez bakarrik euskara galtzeko arriskuan dagoelako, baizik eta munduari gauzak nola egin ditzakegun eredu berriak eta probetxugarriak ematen ari garelako. Hau da, munduan gurea bezalako egoera asko daude, eta okerragoan daudenak ere bai. Hizkuntza gutxitu asko galtzen ari dira. Eskolak ez baldin badu hori fundamentuz egiten hizkuntza horiek ez daukate etorkizunik, jakina. Hizkuntza horiek ikasi behar dira, baina beste handiak ere bai. Ezin dugu diskriminatu eta utzi. Zuk zure hizkuntza hain polita duzu, hori egin eta kito. Horrekin nahikoa duzu. Ba ez. Badakigu gaur beste hizkuntza handiak behar ditugula, baina horrek ez digu eragozten, posiblea da, horrekin batera txiki edo mugatu edo oraindik nahiko garatua ez den hizkuntza hori ere lantzea. Eta horrek beste aberastasun bat ematen digu. Hori denontzako aberastasuna eta aurrerapena denez, ezin dut besterik egin, gomendatzea baino.

*[Creo que la enseñanza plurilingüe cuando introduce una lengua minoritaria como es el euskera, a pesar de tener un desafío más complejo, algunos dirán que pese a hacerla más complicada, no creo que podamos negarla. Y además no nos conviene de ninguna manera, no solo porque el euskera está en riesgo de extinción, sino porque también le*

*estamos dando nuevos y provechosos ejemplos al mundo de cómo podemos hacer las cosas. Es decir, en el mundo hay muchas situaciones como la nuestra y también algunas peores que la nuestra. Se están perdiendo muchas lenguas minoritarias. Si la escuela no hace eso con fundamento esas lenguas no tienen futuro, por supuesto. Esas lenguas hay que aprenderlas, pero también otras grandes. No podemos discriminarlas y dejarlas. Usted tiene una lengua muy bonita, haga esa y ya. Con eso tiene suficiente. Pues no. Hoy sabemos que necesitamos otras grandes lenguas, pero eso no nos impide, si es posible, que junto a ellas se trabaje también esa lengua minoritaria o limitada o que todavía no está desarrollada. Y eso nos ofrece otra riqueza. Como eso es una riqueza y avance para todos, no puedo hacer otra cosa que recomendarlo.]*

Mila esker zuen arretagatik eta zuen esku izango nauzue galderak egin nahi baldin badituzue, eta izango dituzue, noski. Eskerrik asko.

*[Muchas gracias por su atención y quedo a su disposición por si quiere realizar preguntas, que las tendréis, claro. Muchas gracias.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko Itziar Idiazabal andereari azalpen honengatik. Azalpena bukatuta, irekiko dugu parlamentu taldeen txanda. Hasiko gara Geroa Bai taldearen ordezkaria den Koldo Martínez jaunarekin. Zurea da hitza.

SR. MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA: Eskerrik asko, presidente jauna. Eta eskerrrik asko bihotz-bihotzez Itziar Idiazabal andereari aurkeztutako guztiagatik. Ni guztiz bat nator Geroa Bai Talderen ordezkari edo eledun naizen neurrian zuk esandako guztiarekin. Hainbat gauza interesgarri esan dituzu eta, neurri batean, berriak ere bai. Berriak edo gutxitan entzuten ditugunak. Adibidez, momentu batean esan duzu euskara nafar guztion ondarea dela eta espainiar guztion ondarea ere bai. Eta nik eutsi nahiko nioke, izan ere, zoritxarrez hemen presente ez dauden bi alderdiek argi eta garbi daukate euskara nafar batzuen ondarea dela, euskaraz egiten dugunon ondarea dela. Hori erabiliz baita ere neurri batean nafar gutxi batzuen ondarea dela. Denek maitatzen omen dugu euskara, beraiek ere bai, baina argi dago euskaraz ari garen komisoetan eta batzordeetan ez daudela, alde egiten dutela eta euren ardurei uko egiten diete, euren ardurei nafar gizartearen ordezkari diren neurrian behintzat. Eta gustatu zait hori entzutea, espainiar guztion ondarea dela euskara.

*[Muchas gracias, señor Presidente. Y muchas gracias de corazón a la señora Itziar Idiazabal por todo lo expuesto. Yo estoy completamente de acuerdo, como representante o portavoz de Geroa Bai, con todo lo que ha dicho. Ha dicho muchas cosas interesantes y en cierta medida también novedosas. Nuevas o que las hayamos escuchado poco. Por ejemplo, en un momento ha dicho que el euskera es patrimonio de todos los navarros y también patrimonio de todos los españoles. Y yo lo apoyaría, ya que los dos grupos que desgraciadamente no está aquí presentes tienen claro que el euskera es un patrimonio de algunos navarros, que es patrimonio de los que hablamos euskera. Valiéndose de eso, que en cierta medida es patrimonio de unos pocos navarros. Parece que todos amamos el euskera, también ellos, pero está claro que no están en las comisiones y sesiones en las que hablamos de euskera, que se marchan y dejan de lado sus obligaciones, a menos a sus obligaciones en la medida en la que son representantes*

*de la sociedad navarra. Y me ha gustado escuchar esto, que el euskera es patrimonio de todos los españoles.]*

Hau azpimarratzea oso garrantzitsua da niretzat zeren hainbatek, eta nik uste dut EAEn gauza bera gertatu zela une historiko konkretu batzuetan, euskara instrumentalizatu nahi izan zuten batzuek eta, agian, seguru aski baita besteek ere. Ni gogoratzen naiz Europako hizkuntz gutxituen kartak, edo ez kartak berak baizik eta noizbehinka egiten diren txosten horietan Europako adituek argi eta garbi esaten zutela ez zela zilegia, ez zela inolaz ere egokia, zeren denbora batetan hori egiten zen, euskara eta ETA konkretuki lotzea, euskara eta abertzaletasuna lotzea, euskara guztiona delako edo behintzat horrela uste zuten Europako Kontseiluko adituek. Zoritxarrez, hori oraindik Nafarroan ikuspuntu hori oso bizirik dago. Zoritxarrez oso bizirik. UPNk eta Alderdi Popularrak, Nafarroan behintzat, oraindik hori defendatzen jarraitzen dute, euskara izango balitz tresna bat euskal nazioa edo euskal estatutua inposatzeko nafarro. Eta, benetan, penagarria da. Penagarria da hain guztiona, eta hain guztiona esaten dudanean zurekin bat nator, nafar guztiona eta espainiar guztiona den ondare bat instrumentalizatu egitea interes politiko konkretu batzuen defentsarako. Argi eta garbi esan duzu: hizkuntzak aberastasunak dira. Eta guztiz bat nator.

*[Para mí es muy importante destacar esto porque muchos, y creo que en la CAV pasó lo mismo en algunos momentos históricos concretos, quisieron instrumentalizar el euskera y seguramente los otros también. Yo recuerdo cómo en la carta europea de las lenguas minoritarias, o no en la propia carta, sino en esos informes que se hacen a veces, expertos europeos dijeron claramente que no era justo, que no era adecuado de ninguna manera, porque en un tiempo se hacía eso, relacionar el euskera y ETA concretamente, relacionar el euskera y el nacionalismo, porque el euskera es de todos, o al menos así lo creyeron los expertos del Consejo Europeo. Desgraciadamente, ese punto de vista todavía está muy vivo en Navarra. Por desgracia, muy vivo. Al menos UPN y el Partido Popular siguen defendiendo eso en Navarra, como si el euskera fuera una herramienta para imponer la nación vasca o el estado vasco a los navarros. Y es realmente triste. Es triste que un patrimonio que es tan de todos, y cuando digo todos concuerdo con usted, de todos los navarros y todos los españoles, se instrumentalice para la defensa de algunos intereses políticos concretos. Los ha dicho de manera clara: las lenguas son riquezas. Y estoy completamente de acuerdo.]*

Nik gauza bat azpimarratzen bukatu nahiko nuke. Egia da, ingelesak badu balio instrumental ikaragarri bat mundu honetan. Eta balio instrumental hori handitu egiten dute euskararen kontra, argi eta garbi esango dut, euskararen kontra ari direnek. Lan bat bilatzeko mundu globalizatu honetan ingelesra guztiz beharrezkoa da. Nora zoaz ingelesik gabe? Eta ahaztu egiten zaie balio eta balore intrintsekoak. Nire ustez, argi eta garbi esan duzunez eta hainbat aldiz errepikatzen ari naizenez, euskara nafar eta espainiar guztion balore intrintseko bat da. Guk ez badugu euskara desagerpenetik salbatzen euskara galdu egingo da. Eta euskara guztiontzat galduko da. Beraz, hori gure balore intrintseko bat da. Guk ez badugu euskara dagoen egoera zailetik ateratzen inork ez du aterako. Eta argi eta garbi dago batzuek euskara gordailu bat bezala erabili nahi dutela, mantendu nahi dutela, baina ez dutela kalera atera dadin nahi, ez dutela hezkuntzara atera dadin nahi, ez dutela giza harremanetan sartu dadin nahi. Eta hori euskara hizkuntza balore instrumental bat bezala erabiltzea da.

*[Me gustaría terminar destacando algo. Es cierto, el inglés tiene un valor instrumental enorme en este mundo. Y ese valor instrumental lo agrandan aquellos que están en contra del euskera, lo diré claramente. Para encontrar trabajo en este mundo tan globalizado el inglés es totalmente imprescindible. ¿A dónde va sin inglés? Y se olvidan los valores intrínsecos. En mi opinión, como usted claramente ha dicho y como he repetido en diversas ocasiones, el euskera es un valor intrínseco de todos los navarros y españoles. Si nosotros no salvamos el euskera de la desaparición, el euskera se perderá. Y el euskera se perderá para todos. Por lo tanto, ese es un valor intrínseco nuestro. Si nosotros no sacamos el euskera de la situación complicada en la que está, no lo sacará nadie. Y está claro que algunos quieren utilizar el euskera como un tesoro, que lo quieren mantener, pero que no quieren que salga a la calle, que no quieren que salga a la educación, que no quieren que se introduzca en las relaciones sociales. Y eso es utilizar el euskera como un valor instrumental.]*

Eta kezgarria da zeren, berriz ere, guztion ondarea den euskara balore instrumentaltzat jotzen badugu hainbat eta hainbat arlotan ere arrisku hori daukagu, egiazko baloreak alde batera utzi eta balore instrumentalak azpimarratu, balore instrumentalei balore guztia eman eta balore intrintsekoei kendu. Eta nik uste dut hori dela benetan UPN eta PP egiten ari direna geure gizartean. Eta ez bakarrik beraiek, baizik eta filosofia neoliberal guztiak egiten ari direna.

*[Y es preocupante porque, de nuevo, si tomamos el euskera que es patrimonio de todos como un valor instrumental, y ese riesgo lo tenemos en muchos ámbitos, si dejamos de lado los valores reales y destacamos los valores instrumentales, le damos todo el valor a los valores instrumentales y se lo quitamos a los intrínsecos. Y yo creo que eso es lo que realmente están haciendo UPN y PP en nuestra sociedad. Y no solo ellos, sino también lo que están haciendo todas las filosofías neoliberales.]*

Horregatik eta aipatu dituzun arrazoi guztiengatik, euskara bultzatu egin behar dugu euskaragatik, euskararentzat, euskararentzako eta gizartearentzat, gizarte osoarentzat. Geroa Bai Taldearen ustez behintzat ez tresna bat izango balitz bezala beste helburu batzuk lortzeko. Euskara salbatzea balore intrintseko bat, balore final bat defendatzea da. Hori da gure asmoa eta besteek esan dezatela nahi dutena, baina gezurretan eta oso joko arriskugarri batetan sartuak egongo dira.

*[Por eso y por todas las razones que ha comentado, tenemos que impulsar el euskera por el euskera, para el euskera, para con el euskera y para la sociedad, para toda la sociedad. Al menos según la opinión de Geroa Bai no como si fuera una herramienta para lograr otros objetivos. Salvar el euskera es defender un valor intrínseco, un valor final. Esa es nuestra intención y que lo demás digan lo que quieran, pero estarán metidos en mentiras y en un juego muy peligroso.]*

Eskerrik asko, Itziar, esandako guztiarengatik. Hainbat gauza eman diguzu sakonago pentsatzeko eta horri helduko diogu. Eskerrik asko.

*[Muchas gracias, Itziar, por todo lo que ha dicho. Nos ha dado muchas cosas para que pensemos con mayor profundidad y nos pondremos a ellos. Muchas gracias.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Martínez jauna. Hemen, ohiko mekanikari jarraituz, hizlariak bost minutuko tartea dauka zerbait esan nahi izanez gero hori esateko.

SRA. IDIAZABAL GORROTXATEGI: Eskerrik asko. Zer esango dut? Euskarak bere baitan balio intrintseko edo barne balioa daukala azpimarratzea edo horrela sentitzea batzuetan kanpotik datorren joera batek ikusarazten dizu. Nik baditut lagun asko Alemanian, badakizue badaudela euskarazko katedrak Frankfurten, Konstantzan, Leipzigen edo Kielen... Unibertsitate askotan euskarazko katedrak daude. Alegia, euskara irakasten da. Katedra horiek, eta Alemanian bereziki, nahiz eta horrelako katedrak munduko beste tokietan ere egon, ikaslez beteta daude. Eta esaten duzu: zer gertatzen da? Nola euskararekin zerikusi bat ere ez duen jendea joaten da eskola horietara euskara ikastera eta euskara ikasten dute? Nik ikusi dut ikasi egiten dutela. Haien zat ez dauka guretzat daukan balio hori, gertuagoa daukagulako, identitarioa delako. Ez daukate balio indentitario hori. Baina eurek ikusten dute euskara dela, beste hizkuntza asko bezala, baina aukera izaten dute eta esaten dute: zergatik ez dut ikasiko? Eta gero, sartzen direnean, ikasten jarraitzen dute. Nik uste dut badela ere kultur adierazgarri bat. Iparralderago eta herrialde bat zenbat eta kultuagoa izan, orduan eta errespetu eta sentsibilitate handiagoa du hizkuntza guztiekiko.

*[Muchas gracias. ¿Qué voy a decir? El hecho de destacar o sentir que el euskera en sí mismo tiene un valor intrínseco o un valor interior te hace ver a veces una tendencia que viene de fuera. Yo tengo muchos amigos en Alemania y ya sabrán ustedes que hay cátedras de euskera en Frankfurt, Constanza, Leipzig o Kiel. En muchas universidades hay cátedras de euskera. Es decir, se enseña el euskera. Esas cátedras y las de Alemania especialmente, aunque también haya cátedras en otras partes del mundo, están repletas de alumnos. Y se preguntará: ¿qué está pasando? ¿Cómo gente que no tiene nada que no tiene nada que ver con el euskera va a esas escuelas a aprender euskera y aprenden euskera? Yo he visto que aprenden. Para ellos no tiene ese valor que tiene para nosotros, porque lo tenemos más cerca, porque es identitario. No tienen ese valor identitario. Pero ellos ven que es euskera, como muchas otras lenguas, pero tienen la oportunidad y dicen: ¿por qué no lo voy a aprender? Y luego, cuando entran, siguen aprendiendo euskera. Yo también creo que es una característica cultural. Cuanto más al norte y cuanto más culto sea el país, mayor respeto y sensibilidad tiene para con todas las lenguas.]*

Orduan, horren kontra joatea hain kulturaren kontrako zerbait da. Ez da euskaldunen edo abertzaleen kontra joatea, baizik eta kultura goitik behera, besterik ez, hartu eta kulturaren kontrakoa da euskararen kontra joatea. Ikusten duzunean beste batzuk inolako arrazoi berezirik gabe ikasten jartzen direla hizkuntza hori eta euskararen gramatikak eta historiak begiratzeko baditugu, ez da kasualitatea Humboldt eta horrelako alemanak izatea eta hona etortzea eta euskararekin liluratzea, hizkuntza berezia delako. Eta ez da horregatik gehiago maitatu behar dugunik. Hori horrela gertatu zaigu eta aprobeitza dezagun. Gauza asko kontratzen ditugu. Beraz, hizkuntza interesgarria egiten baldin bada are eta hobeagoa izango da. Baina ez da horregatik bakarrik. Lehen esan dudan moduan, zenbat eta kultuagoa izan, hizkuntza aniztasunarekiko errespetu eta interes gehiago. Horren kontra joatea ulertezina bihurtzen da, nolabait ere barrera ideologiko murrizgarriak ez baldin badaude. Horren aurka zaila da. Baina nik uste dut alde dauzkagun puntuak esatea eta indartzea komeni zaigula. Besterik ez.

*[Entonces, ir en contra de eso es algo contrario a la cultura. No es ir en contra de los vascoparlantes o de los nacionalistas, sino coger la cultura de arriba abajo, nada más, e ir en contra de la cultura al ir en contra del euskera. Cuando uno ve que otros sin ninguna razón especial se ponen a aprender esa lengua y si vemos las gramáticas e historias del euskera, no es casualidad que sean Humboldt y alemanes así y vengan aquí y queden fascinados por el euskera, porque es una lengua especial. Y no es por eso que la tengamos que amar más. Eso nos ha sucedido así y aprovechémoslo. Tenemos muchas cosas en contra. Por lo tanto, si la lengua nos parece interesante será mucho mejor. Pero no es solamente por eso. Como he dicho antes, cuanto más culto se es, más respeto e interés hacia la pluralidad lingüística. I en contra de eso parece en cierto modo incomprensible, en cierto modo si no hay barreras ideológicas restrictivas. Contra eso es difícil. Pero creo que nos conviene decir y reforzar los puntos que tenemos a favor. Nada más.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko. Orain, txandarekin jarraituz, EH Bildu Taldeari dagokio hitza eta beraz, neronek egingo dut azalpena.

*[Muchas gracias. Ahora, siguiendo con el turno, le toca tomar palabra a EH Bildu y, por lo tanto, yo mismo haré la explicación.]*

Gaurko saioaren titulua hizkuntzen trataera eta hezkuntza da, eta nik uste dut abiapuntua zein den kontuan izan behar dela. Nik uste dut hori bistakoa dela. Nafarroan bertan biltzen diren bi hizkuntza dauzkagu, gaztelania eta euskara, eta gero atzerriko hizkuntzak ere bai. Ingelesak beharbada merezi du aipamen berezia gaur egun nazioartean eta hemen bertan daukan prestigio eta erabilera eta bultzada horregatik. Eta gero, Itziarrek esan duen bezala ere, beste hainbat hizkuntza ere badaude, gehienbat migratzaileen hizkuntzak, komunitateak hemen daudelako eta hiztun taldeak bere hizkuntzarekin ere bizi direnak. Trataera berezia beharko dute, baina hor badaude.

*[El título de hoy es el tratamiento de las lenguas y la educación y creo que hay que tener en cuenta cuál es el punto de partida. Creo que eso es evidente. En Navarra tenemos dos lenguas que se unen ahí, el castellano y el euskera, y luego también lenguas extranjeras. El inglés quizá merezca una mención especial por ese prestigio, uso e impulso que tiene actualmente internacionalmente y también aquí. Y luego, como también ha dicho Itziar, hay muchas otras lenguas, mayormente las lenguas de los migrantes, porque aquí hay comunidades y también grupos de hablantes que viven con su lengua. Necesitarán un tratamiento especial, pero ahí están.]*

Bistan da, Batzorde honen gaia delako, euskararen lege batek ere nolabait hizkuntza eta irakaskuntzaren gaia hartu beharko lukeela bere gain. Eta lege horrek gai horri nolabaiteko tratamendua eman beharko lioke. Nik uste dut gai honen inguruan hizketan hasita funtsezko galdera batzuk egin behar ditugula. Batez ere da ea zer egin nahi dugun komunitatean dauzkagun hizkuntzekin eta gero hori nola egin nahi dugun.

*[Es evidente, porque es el tema de esta Comisión, que una ley del euskera debería incluir también de algún modo la lengua y la enseñanza. Y esa ley debería darle un cierto tratamiento a ese tema. Creo que al empezar a hablar de este tema tenemos que hacer*



*unas preguntas fundamentales. Sobre todo, es a ver qué queremos hacer con las lenguas que tenemos en la comunidad y luego eso cómo lo queremos hacer.]*

Nik EH Bildu Taldearen ikuspegia nolabait azaltzen saiatuko naiz. Nik uste dut, gure aldetik bistakoa da, hizkuntza hegemoniko nagusiak, kasu honetan gaztelaniak Nafarroan, berme guztiak dauzkala. Uste dut hori ezin dugula burutik kendu. Nafar guztiak gaztelaniaz ikasten dute, eredu linguistikoa edozein dela ere, denek. Eta muturrera joanda, eta hartu herri erabat euskalduna, bizitza sozial osoa euskaraz egiten duen herri bat, harrapatu D ereduan ikasten duen ume bat, etxean, kalean, aisialdian euskaraz egiten duen hura ere, eta horrek ere ikasiko du gaztelania ongi. Txikitari, noski, gutxiago, baina gero, urteak aurrera joan ahala, hori neronek frogatua daukat etxean bertan, ikasten da. Beraz, esan nahi dudana da hizkuntza hegemoniko horrek, gaztelaniak, ziurtatu daukela ikasle guztiak edozein eredutan ikasita, Nafarroako edozein herritan ikasita, bizimodua edozein dela ere, horiek ondo ikasiko dutela hizkuntza hori.

*[Yo voy a intentar explicar el punto de vista de EH Bildu. Creo, nosotros creemos que es evidente, que la lengua hegemónica mayoritaria, en este caso el castellano en Navarra, tiene todas las garantías. Creo que eso no podemos dejar de tenerlo en mente. Todos los navarros aprenden castellano, sea cual sea el modelo lingüístico, todos. Y si vamos al extremo, y cogemos un pueblo completamente vasco parlante, un pueblo que haga toda la vida social en euskera, cogemos un niño que estudie en el modelo D, ese que hable en euskera en casa, en la calle, en el tiempo libre, y ese también aprenderá bien el castellano. De pequeño claro, menos, pero luego, con el paso de los años, y eso lo tengo yo probado en casa, se aprende. Por lo tanto, lo que quiero decir es que esa lengua hegemónica, el castellano, tiene asegurado que todos los estudiantes, sin importar el modelo en el que estudien, estudiando en cualquier pueblo de Navarra, sea cual sea el modo de vida, esos también aprenderán esa lengua.]*

Beraz, hori bermatuta, nik uste dut nafarrek pixka bat arreta jarri behar dugula beste hizkuntza nagusi horretan, kasu honetan, hizkuntza gutxituan, euskararen gure kasuan. Guri behintzat iruditzen zaigu nafarrek bertako hizkuntza hori ezagutzea helburu zentzuzkoa, logikoa eta gainera egingarria dela. Alegia, uste dut edozein nafarrentzat, eta bereziki ardura politikoa duten talde guztientzako ere, zentzuzkoa dela planteatzea nafarrek hizkuntza hori ikasi dezaketela eta ikastea komeni dela. Zentzuzkoa eta logikoa zergatik? Hasteko, denok, esango nuke salbuespenik gabe, baita hemen falta diren alderdi horiek ere, esaten dugulako hizkuntza bertakoa eta propioa dela. Horrela jasota dago gainera gaur egun indarrean dagoen euskararen legean ere. Hori denok esan izan dugu hemen bertan, propioa eta gure dela. Nik uste dut badela arrazoi bat bultzatzeko nafarrok euskara ezagutu dezagun.

*[Por lo tanto, una vez eso garantizado, creo que los navarros tenemos que poner un poco de atención en esa otra lengua importante, en este caso, una lengua minoritaria, el euskera en nuestro caso. A nosotros al menos nos parece que el hecho de que los navarros conozcan esa lengua loca es un objetivo razonable, lógico y además realizable. Es decir, creo que para todos los navarros y especialmente para todos los grupos que tienen una responsabilidad política también es lógico que se plantee que los navarros puedan aprender esa lengua y que se recomienda aprenderla. ¿Por qué es razonable y*

*lógico? Para empezar, todos, diría que, sin excepciones, también los partidos que hoy faltan aquí, decimos que es una lengua del lugar y propia. Además, así está recogido en la ley del euskera vigente en la actualidad. Eso lo hemos dicho aquí todos, que es local y es nuestra. Creo que es una razón para impulsar que los navarros conozcamos el euskera.]*

Nafarroako populazioaren zati esanguratsu batek egunero erabiltzen du hizkuntza hori. Herrialdearen zati batean hizkuntza ohikoa eta nagusia da. Hainbat herritan bertako hizkuntza nagusia horixe da. Beraz, nafar askok ere beren artean komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza da. Hizkuntza guztiek bezala, euskarak ere ate batzuk ireki ditzake momentu batean, merkatuan beharbada baita profesionalki begiratuta ere. Ate batzuk ireki ditzake. Eta baita ere esan beharko da Nafarroako bizitza sozialean eta kulturean euskara ere erabiltzen dela. Eta badago bizitza sozialaren eta kulturalaren parte bat euskaraz egiten dena eta euskara ez dakienak horretarako sarbidea ere badauka. Eta gero, jakina, esan beharko da hizkuntza gehiago ikastea gehigarria dela. Alegia, batek euskara ikasten baldin badu, ez du gaztelania ahazten, ezta ingelesa edo esloveniera edo beste edozein hizkuntza ere. Hori gehigarri bat da eta batak besteari ez dio lekua kentzen. Gure burmuinak badauka tokia hizkuntza batzuk maneijatzeko eta erabiltzeko eta egunero egiten dugu.

*[Una parte significativa de la población de Navarra utiliza esa lengua a diario. En una parte de la región es la lengua habitual y principal. En muchos pueblos la lengua mayoritaria es esa. Por lo tanto, es la lengua que utilizamos muchos navarros para comunicarnos. Como todas las lenguas, el euskera también puede abrir algunas puertas en un momento, ya sea en el mercado o también mirando desde un punto de vista profesional. Puede abrir algunas puertas. Y también habrá que decir que el euskera también se utiliza en la vida social y cultural de Navarra. Y hay una parte de la vida social y cultural que se hace en euskera y que quien no lo sabe también tiene acceso a ella. Y luego, claro, habrá que decir que aprender más idiomas suma. Es decir, si uno aprende euskera, no olvida el castellano, ni tampoco el inglés, ni el esloveno ni ninguna otra lengua. Eso es un añadido y una no quita sitio a la otra. Nuestro cerebro tiene sitio para manejar y utilizar algunas lenguas y lo hacemos a diario.]*

Beraz, esan dugu gure ustez zentzuzko helburu bat dela, logikoa, edozeinek besarkatzeko moduko helburua. Eta gainera egingarria ere bada. Alegia, hemengo ikasle guztiek gaztelaniaz dakite eta euskara ere bai, baita ingelesa ere. Egingarria da gaur egun dugun eskarmentuarekin eta ezagutzarekin, badakigulako hizkuntzak badituela baliabideak lortzeko hitzun horiek denek bi hizkuntza horietaz jabetzea eta baita hirugarren hizkuntza horretaz ere. Hori jada frogatuta dago eta denok ezagutzen dugu errealitate hori.

*[Por lo tanto, hemos dicho que en nuestra opinión es un objetivo razonable, lógico, como para que cualquiera lo abrace. Y además es realizable. Es decir, todos los estudiantes de aquí saben castellano y también euskera e inglés. Es razonable con la experiencia y conocimiento que tenemos hoy en día, porque sabemos que la lengua tiene recursos para conseguir que todos esos hablantes tengan la posesión de esas dos lenguas y también de esa tercera lengua. Eso ya está probado y todos conocemos esa realidad.]*

Gaztelania hizkuntza hegemonikoa jakin behar dute, badakite eta jakinen dute Nafarroako ikasle guztiek. Lehen esan dudan moduan eredu edozein dela ere. Eta hemen ere esan da horrek laguntza gutxi behar duela berez gizarteak osatzen duelako horren ikasketa prozesua. Hizkuntza gutxituak dira laguntza behar dutenak. Horregatik, nik uste dut hizkuntza antolatzeko garaian eta ere linguistikoa ere, errealitate hori oso gogoan izan behar dela. Ziurtatua daukagu nafar guztiek gaztelania ondo ikasiko dutela, baina ez noski beste gure hizkuntz hori ikasiko dutenik. Orduan, nik uste dut antolatzeko garaian hori kontuan izan behar dugula eta horren arabera eredu linguistikoa antolatu.

*[Tienen que saber la lengua hegemónica que es el castellano, la saben y la sabrán todos los estudiantes de Navarra. Como he dicho antes, sea cual sea el modelo. Y aquí también hay que decir que eso necesita pocas ayudas ya que la sociedad crea de por sí ese proceso de aprendizaje. Las lenguas minoritarias son las que necesitan ayuda. Por eso, creo que, a la hora de organizar la lengua y también el modelo lingüístico, hay que tener en mente esa realidad. Tenemos garantizado que todos los navarros van a aprender bien el castellano, pero no que vayan a aprender nuestra otra lengua esa. Entonces, creo que a la hora de organizarlo tenemos que tener en cuenta eso y según eso preparar el modelo lingüístico.]*

Errealitateak erakutsi diguna da orain arte erabili diren eredu horietan murgiltzea dena emaitza egokia, logikoa denez. Emaitza hoberena ematen duena da euskararekiko esposizio handiena ematen duen eredu eta gainera pixka bat eskolako ere osatzen duena, ingurune sozialean ere euskara erabiltzeko aukerak emanez. Nik uste dut hori begi-bistakoa dela, hori emankorra dela eta hobekien funtzionatu duena. Eredu linguistikoko horrek, A, B, D eta G, buelta bat beharko du. Uste dut dena birpentsatu behar dela eta beste eredu integralago batera joan beharko dela. Baina orain arteko praktikak erakutsi diguna da, noski, euskara hobekien ikasten dutenak izango direla ere murgiltze horretan ari direnak.

*[Lo que la realidad nos ha demostrado es que la respuesta adecuada es sumergirse en esas lenguas que se han utilizado hasta ahora, como es lógico. Lo que da mejor resultado es el modelo que ofrece una mayor exposición para con el euskera y además también el que crea el de la escuela, ofreciendo oportunidades para utilizarlo también en la vida social. Creo que eso es evidente, que es productivo y que es lo que mejor funciona. Ese modelo lingüístico, A B, D y G, necesitará una vuelta. Creo que hay que repensar todo y que habrá que ir hacia otro modelo más integral. Pero lo que nos ha demostrado la práctica que se ha dado hasta ahora es que, por supuesto, los que mejor aprenden euskera serán los que estén en esa inmersión.]*

Guk badakigu, noski, gure ikuspegia eta planteatu dugun logika ez dutela Nafarroako Parlamentuaren talde politiko guztiek berdin konpartitzen, beharbada herritarren batzuk ere ez. Baina deskribapen objektibo batek eta azterketa objektibo batek gutxienez bai ondorio batzuk erakutsi dizkigula eta hori uste dut kontuan hartzekoa ere badela.

*[Nosotros sabemos, claro, que nuestro punto de vista y la lógica que hemos planteado no la comparten de la misma manera todos los grupos políticos del Parlamento de Navarra, quizá tampoco algunos ciudadanos. Pero sí que una descripción objetiva y un examen*

*objetivo nos han demostrado unas consecuencias y creo que eso hay que tenerlo en cuenta.]*

Gure aspirazioa zein izango litzateke? Lehen esan dugun helburu zentzuzko eta logiko hori lortzea. Alegia, lortzea Nafarroan ikasle guztiak bi hizkuntza horietaz jabetzea. Gaztelaniarena garbi daukagu bermatuta dagoela, baina euskararena ez. Guk nahiko genuke hori denon esku egotea, aukera hori izatea eta aldeko apustu hori egitea. Badaude beste planteamendu batzuk. Guk badakigu. Batzorde honetan ateratako dira. Besteak beste, honetaz hitz egiteko elkartu gara hemen.

*[¿Cuál sería nuestra aspiración? Conseguir ese objetivo razonable y lógico que hemos dicho antes. Es decir, lograr que todos los estudiantes en Navarra posean esas dos lenguas. Tenemos claro que el castellano está garantizado, pero el euskera no. Nosotros querríamos que eso estuviera en manos de todos, que se diera esa oportunidad y de hiciera esa apuesta a favor. También hay otros planteamientos. Lo sabemos. Saldrán en esta Comisión. Entre otras cosas, nos hemos reunido aquí para hablar de esto.]*

Nik bai gogoratu nahiko nukeela hemen ez bezala, Estatuko beste komunitate batzuetan esplizituki euren normalizazio legeetan helburu bezala hori jarri dutela. Euskal Autonomia Erkidegoan, Katalunian, Galizian eta Balear Uharteetan, esate baterako, euren legeetan jarrita daukate helburua dela ikasketa prozesu hau bukatzeko garaian, unibertsitatea baino lehen, ikasle guzti horiek bertako bi hizkuntza horien jabe izatea. Ez zaio bati uko egiten, ez nagusiar ez besteari. Guk ez dugu helburu hori esplizituki inon jarrita, baina uste dut jarri beharko genukeela eta oso gauza zentzuzkoa dela edozeinek onartzeko modukoa esatea hemen ere lortu dezagun beste horiek nahi dutena, alegia, denek izan dezatela bi hizkuntza horien jabe eta horretarako egin dezagun egin behar dena. Eta beste gauza asko behar dira. Eskolak bakarrik ezin du hau konpondu, hori oso garbi daukagu. Baina eskolarik gabe, noski, hori ezin da lortu. Orduan, gauza guztiz gehigarri eta onuragarria denez, uste dut denok jarri beharko genukeela enklabe horretan.

*[Yo sí que querría recordar que al contrario que aquí, en algunas comunidades del Estado en sus leyes de normalización han establecido explícitamente ese objetivo. En la Comunidad Autónoma Vasca, Cataluña, Galicia y las Islas Canarias, por ejemplo, en sus leyes tienen establecido que es un objetivo que todos los estudiantes al terminar este proceso de aprendizaje, antes de la universidad, estén en posesión de esas dos lenguas locales. No se niega ninguna, ni la mayoritaria ni la otra. Nosotros no tenemos ese objetivo establecido de manera explícita, pero creo que lo deberíamos poner y que es algo razonable y como para que lo acepte cualquiera y decir que logremos aquí eso que también quieren esos otros, es decir, que todos estén en posesión de las dos lenguas y que para eso hagamos lo que hay que hacer. Y hay que hacer muchas otras cosas. La escuela sola no puede arreglar esto, eso lo tenemos muy claro. Pero sin la escuela, claro, eso no se puede lograr. Entonces, como es algo completamente complementario y beneficioso, creo que todos nos deberíamos poner en ese enclave.]*

Hemen, Itziarrek gauza batzuk esan ditu oso interesgarriak direnak. Nik horietako asko ekarri nahiko nituzke, baina ez daukat astirik. Baina bai ikusten dela hemen Nafarroan apustu politiko bat egin dela, UPNren Gobernuak egindakoa, eta izan da nolabait dilema bat sortzeko gurasoei

ingelesaren eta euskararen artean. PAIren kontu hori uste dut eta nik esaten dut, baina Yolanda Barcinak ere esan zuen Madrileko tertulia famatu horretan zein zen PAI hura ezartzeko erabakiaren azkeneko helburua. Eta nik uste dut dikotomia faltsua dela eta ezin dela horrela planteatu. Horregatik esaten dut oso garbi izan behar dugula zer nahi dugun hizkuntzekin egin herrialde honetan eta, esan dudan bezala, gaztelania guztiz bermatua dagoela, beraz, bermatu dezagun euskara. Eta ingelesa ere, batzuetan ematen du ahazten zaigula, gaur egun ere ematen da. Leitzako eskolan adibidez euskaraz ikasten dute baina ehundaka ordu egiten dituzte ingelesa ikasten. Nik uste dut komeni dela eta ondo dagoela. Ikastea hizkuntza sistemak hori ere sartu beharra dauka, txertatu behar du ingelesaren irakaskuntza, baina jakinda pixka bat noraino iritsi nahi dugun hizkuntza bakoitzarekin, errealitate soziolinguistikoa zein den, exigentzia soziala hizkuntza bakoitzarekin zein den, zertarako behar dugun hizkuntza bakoitza eta hortik joan.

*[Aquí, Itziar ha dicho algunas cosas muy interesantes. Yo quisiera traer muchas de ellas, pero no tengo tiempo. Pero sí que se ve que aquí en Navarra se ha hecho una apuesta política, realizada por el gobierno de UPN, y no se les puede crear a los padres y madres un dilema entre el inglés y el castellano. La cuestión esa del PAI creo y lo digo yo, pero Yolanda Barcina también lo dijo en esa famosa tertulia de Madrid cuál era el objetivo final de la decisión de establecer el PAI. Y creo que es una falsa dicotomía y que no se puede plantear así. Por eso digo que tenemos que tener muy claro qué queremos hacer con las lenguas en esta región y, como he dicho, el castellano está completamente garantizado, por lo tanto, garanticemos el euskera. Y también el inglés, que a veces parece que se nos olvida, en la actualidad también se da. En la escuela de Leiza, por ejemplo, aprenden euskera, pero pasan cientos de horas aprendiendo inglés. Yo creo que eso conviene y que está bien aprenderlo. El sistema lingüístico tiene que meter eso, tiene que introducir la enseñanza del inglés, pero sabiendo un poco hasta dónde queremos llegar con cada lengua, cuál es la realidad sociolingüística, cuál es la exigencia social con cada lengua, para qué necesitamos cada lengua e ir por ahí.]*

Gero, azkeneko arragoa egin nahiko nuke. Euskararen balioaz hitz egin dugu eta nik uste dut argi dagoela dela euskarak balio batzuk dituela. Balio batzuk instrumentalak dira komunikazio hizkuntza bat delako, komunikazio tresna bat delako, hizkuntza guztiak bezala, bai espainola, alemaniera, esloveniera, quechua, eta abar. Beraz, komunikaziorako tresna den neurrian, balio instrumental hori badauka bizitzarako, komunikatzeko, denetarako. Eta gero nik uste dut hizkuntza guztiek, euskarak noski, baina espainolak ere bai eta alemanak eta denek, daukatela ere balio sinbolikoa, identitarioa, integraziorako edo kohesiorako. Eta horregatik estatu gehienetan konstituzioetan aitortuta dago hizkuntzaren estatus bat denak kontziente direlako, edozein estatutan, edozein tokitan, bere hizkuntzak balio hori ere badaukala.

*[Después, querría hacer un último apunte. Hemos hablado del valor del euskera y creo que es evidente que el euskera tiene unos valores. Algunos valores son instrumentales porque es una lengua de comunicación, porque es una herramienta de comunicación, como todas las lenguas, tanto el español como el alemán, esloveno, quechua, etcétera. Por lo tanto, en la medida en la que es una herramienta para la comunicación, tiene ese valor instrumental para la vida, para comunicar, para todo. Y luego yo creo que todas las lenguas, el euskera, por supuesto, pero también el alemán y todas, tienen ese valor*

*simbólico, identitario, para la integración o cohesión. Y por eso en la mayoría de los estados se reconoce en las constituciones un estatus de la lengua porque todos son conscientes, en cualquier estado, que su idioma tiene también ese valor.]*

Orduan, ez da bata edo bestea. Batak ez du bestea kentzen. Nik uste dut denak balio dutela eta nahiko arrazoia dagoela beraz gure hizkuntzen alde egiteko. Batzuetan esan izan den bezala, ulertu baldin bada norbaitek hartu duela euskara bere banderatzat, horrek oso konponbide erraza dauka: hartu dezagun denok euskararen bandera eta horrela ez da inorena izango.

*[Entonces, no es una u otra. Una no quita la otra. Creo que todas valen y que hay suficientes razones para apostar por nuestras lenguas. Como se ha dicho algunas veces, si se ha entendido que alguien ha cogido el euskera como su bandera, eso tiene una solución muy sencilla: que todos cojamos la bandera del euskera y así no será de nadie.]*

Besterik ez. Honekin amaituko dugu. Beraz, tarte emango diogu berriz hizlariari.

*[Nada más. Terminamos con esto. Por lo tanto, le damos la palabra de nuevo a la compareciente.]*

SRA. IDIAZABAL GORROTXATEGI: Uste dut arrazoizkoa dela esaten duzuna. Kontua da nola egin hori adostasunak bilatuz. Uste dut lehen ere esan dudala euskara nafar guztien ondarea dela, baita espainolena eta mundu osoarena ere, hizkuntza guztiak denenak diren moduan, eta nafarrena bereziki. Beraz, horren alde egotea izan beharko luke gauza naturala, baina naturala ez denez, hori eraldatzen ahalegindu beharko genuke. Hori eraldatzeko eskolak pauso asko egin ditu eta jarraitu beharko du egiten, nolabait kalitate handiagoa den eskola bat erakusten duelako. Hau leku askotan gertatu da eta Nafarroan nik neuk ikusi eta bizitu ere egin izan dut.

*[Creo que es razonable lo que dice. La cuestión es cómo hacer eso buscando acuerdos. Creo que antes también he dicho que el euskera es un patrimonio de todos los navarros, también de los españoles y de todo el mundo, al igual que todas las lenguas son de todos, y de los navarros especialmente. Por lo tanto, estar a favor de ello debería ser algo natural, pero como no es natural, tendríamos que esforzarnos es cambiar eso. Para cambiar eso la escuela ha dado muchos pasos y los tendrá que seguir dando, ya que en cierto modo muestra una escuela con mayor calidad. Esto ha ocurrido en muchos lugares y en Navarra yo misma lo he visto y lo he vivido.]*

Beti aipatzen dut hau eta honek hamabost urte edo beharbada gehiago baditu, baina nik gogoratzen dut Lizarran, ez dakit ezagutuko duzuen, baina betidanik ikastola egon da eta ikastolan euskaraz egin da, murgilketaz eta abar. Remontival deitzen den ikastetxe publiko bat dago eta han A eredu besterik ez zen ematen. Orain dela uste dut hamabost bat urte erabaki zuten hasiko zirela euskarazko talde batekin, D eredu bat hasiko zutela haur txikiekin ea zer gertatzen zen. Eta talde hori hasi zen euskaraz eta hor zegoen irakasleak izugarritzko lana egiten zuen, izan ere, hara zetozen ume horiek ez zirelako derrigorrez euskaren aldekoak zirenak, Lizarran konkretuki normalean ikastolara joaten zirelako edo fraile edo monjetara. Hara joaten ziren besterik gabe itxuraz behintzat jarreran euskararekiko hainbeste atxikimendurik ez zutenak. Baina, talde bat osatu zen eta talde horrekin euskaraz lanean hasi

zirenean ikusi zuten bigarren mailara eta hirugarren mailara heldu zirela eta talde hori gero eta erreferenteago bihurtu zela. Eskola horretan bertan besteek esaten zuten gela horretan lan gehiago egiten zela, gela horretakoak patiora joaten zirenean andereñoak egoten da euskaraz hitz egin dezaten baita ere patioko orduetan, gurasoekin bilera gehiago egiten zituztela, uda heltzerakoan udalekuak egiten zituztela euskara hori galdu ez dezaten eta abar. Eta erderaz hutsez ari zirenak betikoa egiten zuten. Orduan esan zuten haiek ere hori nahi zutela.

*[Siempre comento esto y tendrá unos quince años o quizá más, pero yo recuerdo que en Lizarra, no sé si lo conocerán, pero desde siempre ha habido una ikastola y en la ikastola se hablaba euskera, con la inmersión, etcétera. Hay también una escuela pública que se llama Remontival y allí solo se daba el modelo A. Hace creo que quince años decidieron que iban a empezar con un grupo en euskera, que crearían un modelo D con los pequeños a ver qué pasaba. Y ese grupo empezó con el euskera y el profesor que estaba ahí hacía un trabajo inmenso, ya que esos niños que iban allí no eran obligatoriamente partidarios del euskera, porque en Lizarra normalmente iban concretamente a la ikastola o adonde los curas y monjas. Allí iban los que al menos en apariencia no tenían tanto apego al euskera. Pero se creó un grupo y cuando empezaron a trabajar con ese grupo en euskera vieron que llegaron al segundo y al tercer nivel y que ese grupo se volvió cada vez más referente. En esa misma escuela los otros decían que en esa clase se hacía más trabajo, que, cuando lo de esa clase salían al patio la profesora también estaba para que hablaran euskera también en las horas de patio, que hacía más reuniones con los padres y madres, que cuando llegaba el verano iban a colonias para que no perdieran el euskera, etcétera. Y los que estudiaban todo en euskera hacían lo de siempre. Entonces ellos dijeron que también querían eso.]*

Horrekin esan nahi dut han euskara kalitatearen bultzatzaile bihurtu zela. Eta horrek egin zuen nolabait eredu hori gaur egun uste dut Remontivalen A eredurik edo G eredurik ez dakit gelditzen den. Denak D ereduak dira. Joan dira poliki-poliki bereganatuz gauzak ondo egiten dituztela erakutsiz. Uste dut hau oso inportantea dela eta EAEn uste dut, nik azterketaren bat edo beste bideratzen ari naiz, baina ez dago horrelako datu kuantitatibo garbirik hori horrela gertatu denarenik, baina etengabeko testigantzak daude. Eskola honetan A eta D daukagu eta ikusten dugu D-koek zer egiten duten eta A-koek zer egiten duten. Ikasle berdinak dira. Orain dela hamar edo hogeit urte gaurko egoera ez zegoen. Orduan joaten ziren eta batzuk batera joaten ziren eta besteek bestera. D eredura joaten zirenak lan gehiago egiten zuten, ikasle horiek beste martxa bat zeukaten eta irakasle horiek beste inplikazio bat zeukaten. Hau da, eskakizun handiagoak sortzen dituzenez, eskolan lan indartsuagoa egiten da. Eta horrek erakargarriak egiten ditu eta gaur egun ikastetxe horretan ez da A eredurik gelditzen ikusi dutelako D eredu hobea dela oro har.

*[Con eso quiero decir que ahí el euskera fue el impulsor de la calidad. Y eso hizo que ahora en Remontival creo que ya no queda ningún modelo A o G. Son todo modelos D. Han ido poco a poco adquiriendo cosas demostrando que hacen las cosas bien. Creo que esto es muy importante y creo que en la CAV, yo estoy haciendo algún estudio, pero no hay datos cuantitativos claros de que eso haya ocurrido así, pero hay testimonios continuos. En esta escuela tenemos A y D y vemos que hacen los de D y lo que hacen los de A. Son los mismos estudiantes. Hace diez o veinte años no estaba esta situación.]*

*Entonces unos iban a uno y otros a otro. Como los que iban al modelo D trabajaban más, esos alumnos tenían otra marcha y esos profesores otra implicación. Es decir, como pedía mayores requisitos, se hace un trabajo más fuerte en la escuela. Y eso los hace atractivos y en la actualidad en esa escuela no queda modelo A porque han visto que el modelo D es mejor.]*

Lehen esan dut seduzitu edo nik ez dakit nola egin. Zuk behartzen baldin badituzu esanez orain arte horrela izan da baina hurrengo urtean horrela izango da, orain A izan dena D izatera pasatuko da, horrela behartzen badugu ez dut uste arrakastarik izango lukenik. Ni ados nago denen altxorra eta denen ondarea dela euskara eta denek beharko luketela, eta nik hobe beharrez planteatzen dut. Baina hobe behar hori modu malguan eta kalitatezko eskaintza baten bitartez lortu behar da eta poliki lortu behar da. Bestela, zaila ikusten dut benetan arrakastatsua izatea, nahiz eta erabat ados nagoen denen ondarea dela eta denek ikasi behar luketela edo denei erakutsi beharko zitzaizela. Gutxieneko bat bai. EAEn ere ez da lortzen hizkuntza oinarrizkoa edo derrigorrezkoa bukatzen denean bi hizkuntza behar bezala hitz egitea. Hori ez da lortzen, baina euskara bezalako egoeran dagoen hizkuntza batekin lortzen direnak munduan leku gutxitan lortzen dira.

*[Antes he dicho seducir o no sé cómo hacerlo. Si usted los obliga diciendo que hasta ahora ha sido así pero que el próximo año será así, que lo que ahora era A pasará a ser D, si los obligamos así no creo que tuviese éxito. Yo estoy de acuerdo con que el euskera es el tesoro de todos y patrimonio de todos y que todos lo necesitarían, y yo lo planteo de buena fe. Pero esa mejora hay que lograrla de forma flexible y mediante una oferta de calidad y hay que lograrlo despacio. Si no, veo complicado que sea exitoso de verdad, aunque esté completamente de acuerdo con que es patrimonio de todos y que todos deberían aprenderlo o que se les debería enseñar a todos. Un mínimo sí. En la CAV tampoco se logra que al terminar la educación básica u obligatoria se hablen las dos lenguas debidamente. Eso no se consigue, pero lo que se consigue con una lengua en una situación como la del euskera en el mundo se consigue en pocos sitios.]*

Begiratu behar dugu lortzen ari garena aurrera egiteko eta ez oraindik lortu ez duguna. Oso inportantea da lorpenak ikusi, erakutsi eta baloratzuz aurrera egitea. Azken helburua eta denentzat bi hizkuntzak askoz hobeto izango ditugu horrela denok elkarrekin hobeto egongo garelako eta diskriminazio gutxiago egongo delako. Horrekin ados nago eta printzipio bezala baliagarria da. Baina uste dut ibilbideak malgutasunez eta, mila aldiz esan dudan moduan, kalitatearekin lotuz egin behar ditugu. Eta hori izugarri zaindu behar dugu. Eta ez da zaintzen ez EAEn eta Nafarroakoa ez dut asko ezagutzen. Atzean ikerketa behar da eta ikerketak hezkuntza elebidun edo eleanitza hizkuntza gutxitan batekin gauzak oso ondo egitea suposatzen duen zerbait da.

*[Tenemos que ver lo que estamos logrando para avanzar y no lo que todavía no hemos logrado. Es muy importante ver los logros, mostrarlos y avanzar valorándolos. Es el último objetivo y tendremos mucho mejor las dos lenguas para todos porque todos vamos a estar juntos y porque habrá menos discriminación. Con eso estoy de acuerdo y como principio es útil. Pero creo que los caminos los tenemos que hacer con flexibilidad y, como he dicho mil veces, uniéndolos con la calidad. Y eso lo tenemos que cuidar*



*mucho. Y no se cuida ni en la CAV y el cas de Navarra no lo conozco demasiado. Detrás se necesita una investigación y la investigación supone que se hagan muy bien las cosas en la educación bilingüe o plurilingüe con una lengua minoritaria.]*

Hori ez da lortzen. Medizinan eta ospitaletan atzean ikerlariak dauden bezala han gero praktikan zer egiten dena ikusteko, eskolan ere atzean ikerlariak behar dira, non esango den eta garatuko diren gero eskolan hobekien funtzionatzen duten gauzak eduki ditzagun.

*[Eso no se consigue. Al igual que en la medicina y en los hospitales detrás hay investigadores para ver en la práctica luego lo que se hace, detrás de la escuela también se necesitan investigadores, donde se dirá y desarrollará para que luego tengamos en la escuela las cosas que mejor funcionen.]*

Beraz, ados nago helburu orokorrarekin, baina bitartekoak zaindu behar dira eta hor arreta berezia jarri behar da kalitatean.

*[Por lo tanto, estoy de acuerdo con el objetivo general, pero hay que cuidar los medios y ahí hay que poner una atención especial en la calidad.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko. Hurrengo txanda Podemos-Ahal Dugu Taldeko ordezkaria den Pérez Ruano anderearena da. Zurea da hitza.

SRA. PÉREZ RUANO: Mila esker, mahaiburu jauna. Eskerrik asko ere Itziar Idiazabal andereari gaur ekarritako ikuspuntu interesgarriagatik eta, batez ere, zu entzunez erakutsitako guztiagatik.

*[Muchas gracias, señor Presidente. Muchas gracias también a la señora Itziar Idiazabal por el punto de vista interesante que nos ha traído hoy y sobre todo por todo lo demostrado al escucharla.]*

Bat gatoz esandako guztiarekin. Azken finean, hemen aipatu izan diren ideia asko oso interesgarriak iruditzen zaizkigu kalitatezko hezkuntzarako behar den eztabaida aberasgarri horretarako, besteak beste, XXI. mendeko hezkuntza eredu eleanitza behar duela izan. Hemen noizbait esan izan duguna da azkenean guztiok izan beharko genukeela oinarritzko ezagutza batzuk izateko aukera, bai komunikatzeko, bai kultura eta ezagutza horren bitartez euskal kulturari hurbiltzeko. Zentzu horretan, esan duzun bezala, euskara ere elitezko hezkuntza edo hizkuntza ere ez bilakatzeko.

*[Estamos de acuerdo con todo lo dicho. Al final, Muchas de las ideas que se han comentado aquí nos parecen muy interesantes para ese debate enriquecedor que se necesita para la educación de calidad, entre otras cosas, que tiene que ser un modelo de educación plural del siglo XXI. Aquí lo que hemos dicho alguna vez es que al final todos deberíamos tener la oportunidad de tener algunos conocimientos básicos, tanto para comunicarnos como para acercarnos a la cultura vasca mediante esa cultura y conocimiento. En ese sentido, como ha dicho, para que el euskera no se convierta en una educación y lengua para la élite.]*

Hemen behin baino gehiagotan entzun izan dugun ezjakintasunaren apologiak askotan harritu egiten gaitu ezin dugulako ulertu zenbateraino ez den euskara guztion hizkuntza. Eta ez bakarrik nafartarron hizkuntza bezala edo Espainiako hizkuntza bat gehiago bezala, baizik eta munduko altxorra bezala, beste hainbat hizkuntza bezala, baina batez ere gure hizkuntzak dituen berezitasunengatik. Gure ardua bada ere horrela ez jarraitzea. Zentzu horretan guk defendatuko dugu baita pedagogia eginez beharrezkoa dela euskara hizkuntza guztiok ikasi ahal izatea.

*[La apología al desconocimiento que hemos tenido que escuchar aquí una y otra vez muchas veces nos sorprende porque no podemos entender hasta dónde el euskera no es la lengua de todos. Y no solo como lengua de los navarros o como una lengua más de España, sino como tesoro del mundo, como muchas otras lenguas, pero sobre todo por las especialidades que tiene nuestra lengua. También es nuestra responsabilidad no seguir así. En ese sentido, nosotros también vamos a defender que haciendo pedagogía es necesario que todos podamos aprender el euskera.]*

Aipatu dituzu ere nola eleaniztasunak hainbat onura ekartzen dituen, bai norbanakoaren gaitasun kognitiboa garatzeko, baita sozializazio aberastasuna ahalbidetzeko, diskriminazioa saihesteko ere. Hemen ezagutu izan da diskriminazio hori zonifikazioaren bitartez. Segun eta non bizi zinen bazenituen eskubide batzuk edo ez. Eta, horren aurrean, askok askotan esaten dute nola errealitate linguistiko horri jarraiki edo aitzakiatzat hartuz ez den zertan baliabiderik eman behar, ez dela ez hezkuntza ez hizkuntza beharrezkoa. Guk pentsatzen dugu horren aurrean diskriminazio positiboa garatu beharko genukeela eta orain arte aukera horiek izan ez dituztenei baliabide gehiago eskaini.

*[También ha comentado cómo el plurilingüismo trae muchos beneficios, tanto para el desarrollo de la capacidad cognitiva de cada uno como para permitir la riqueza de socialización y también para evitar la discriminación. Aquí se ha conocido esa discriminación mediante la zonificación. Dependiendo de dónde vivían tenías unos derechos o no. Y frente a ello muchos muchas veces dicen cómo siguiendo esa realidad lingüística o poniéndola de excusa no hay que ofrecer recursos, que ni la educación ni la lengua son necesarios. Nosotros pensamos que frente a ello deberíamos desarrollar la discriminación positiva y ofrecer más recursos a aquellos que no han tenido esas oportunidades hasta ahora.]*

Ni oraindik oroitzen naiz nola euskaraz entzun izan nuen lehenengo hitza «ikastola» izan zen. Amak egun batean esnatu ninduen goiz-goizen eta esan zidan: «Bueno, hoy es tu primer día de ikastola». Etxean ez zen euskaraz egiten eta nik ez nekien nora eramaten ninduten. Ni ardua horrekin nengoen, ikastola zer demontre den hori nire buruari galdetuz. Baina oso ongi oroitzen naiz zer entusiasmo eta pasioarekin andereñoak erakutsi zidan dena euskaraz. Murgiltasuna lehen momentutik bizi izan nuen bat batean eta gero, etxera bueltatzerakoan, amak galdetu zidan ea zer moduz nengoen kezkatuta zerbait ulertuko ote nuen eta nik esan nion: «ama, euskara ahaztu egin zait». Niretzako euskara nire barnean egongo balitz bezala eta besterik gabe atera beharko banu bezala.

*[Yo todavía recuerdo cómo la primera palabra que oí en euskera fue «ikastola». Un día mi madre me despertó pronto y me dijo: «Bueno, hoy es tu primer día de ikastola». En*

*cas ano se hablaba euskera y yo no sé a dónde me mandaban. Yo estaba con esa preocupación, preguntándome a ver qué diablos sería la ikastola. Pero recuerdo muy bien con qué entusiasmo y pasión la profesora me lo enseñó todo en euskera. Tuve la inmersión de golpe desde el principio y luego, al volver a casa, mi madre me preguntó a ver qué tal estaba, preocupada por si iba a entender algo y yo le dije: «mamá, se me ha olvidado el euskera». Como si para mí el euskera estuviera dentro de mí y lo tuviese que sacar fuera sin más.]*

Egia da oztopo asko izan ditugula euskaraz ikasi ahal izateko. Esaten baldin bada ere egun guztiok euskaraz egiteko aukera dugula hori ez da egia. Bere garaian ere ezin izan nuen, besteak beste, Erriberara amarekin joan eta bertan euskaraz ikasi, ezingo nuelako. Beraz, Iruñean geratu nintzen. Gero, unibertsitatean ere ezin genuen eta ezin izan dugu eta egun ere ezin da oraindik ere euskaraz ikasketak jarraitu, horrek gero dakarren ondorio guztiakin. Zuzenbidea ikasita gero ezin baduzu ez abokatu zerbitzuak edo epaitegian euskaraz egin, ez bada euskara normalizatzen jada oinarritik ere falta hori dagoelako, ezin izango dugu normaltasunez bizi.

*[Es cierto que hemos tenido muchas trabas para poder estudiar en euskera. Si se dice también que todos tenemos la oportunidad de hablar a diario en euskera eso no es cierto. En su época tampoco pude, entre otras cosas, ir con mi madre a la Ribera y aprender allí en euskera, porque no podía. Por lo tanto, me quedé en Pamplona. Luego, en la universidad tampoco podíamos y no hemos podido y en la actualidad todavía tampoco se puede seguir los estudios en euskera, con todas las consecuencias que eso trae luego. Si tras estudiar derecho luego no puedes dar los servicios de abogado o en los juzgados en euskera, si no se normaliza el euskera porque ya desde la base falta eso, no vamos a poder vivir con normalidad.]*

Horrekin guztiarekin esan nahi nuena zen, azken finean, inplikazio afektiboa oso garrantzitsua dela, bai hezkuntzan eta bai etxean, nahiz eta etxeok euskaldunak ez izan, eta orain arte euskarak bizi izan duen apartheidak ezin dugula onartu eta salatu behar dela alderdi batzuek duten jokabidea, bai UPNk bai PPK hurrengo hilabetetan nola egingo duten manifestazio hori euskararen kontra, lotsarik gabe. Esango nuke gorrotoaren karabana zabalduko dutela haien proiektu politiko eza euskara instrumentalizatuz ezkutatu ahal izateko. Horren aurrean egin behar duguna da pedagogia asko, haien jokoan ez erori eta ea behingoz lortzen dugun euskara, guztiona den hizkuntza, gure altxorra dena, arduraz defendatzea.

*[Con todo esto lo que quería decir es que la final la implicación afectiva es muy importante, tanto en la educación como en casa, aunque los de casa no sean vasco-parlantes, y que no podemos aceptar el apartheid que ha sufrido el euskera hasta ahora y que tenemos que denunciar el comportamiento de algunos partidos, como el de UPN y el PP que en los próximos meses van a hacer esa manifestación en contra del euskera, sin vergüenza. Diría que van a expandir la caravana del odio para poder ocultar su falta de proyectos políticos mediante la instrumentalización del euskera. Frente a eso lo que tenemos que hacer es mucha pedagogía, no caer en su juego y a ver si por fin logramos defender con responsabilidad el euskera, un idioma que es de todos, que es nuestro tesoro.]*

Besterik gabe, mila esker hemen esandako guztiagatik.

*[Nada más. Muchas gracias por todo lo dicho.]*

SR. PRESIDENTE (Sr. Anaut Peña): Eskerrik asko, Pérez anderea. Beraz, berriz ere emango diogu hitza Itziarri erantzun dadin.

SRA. IDIAZABAL GORROTXATEGI: Zer esango dizut? Nik esan duzun guztiarekin ados nago. Esan nahi dut zure gogoetak iruditzen zaizkidala pausu hori eta euskararekin aurrera egin duen norbaiten bizipenak diren heinean erakusten duten aberastasuna erakusten dutela.

*[¿Qué le voy a decir? Yo estoy de acuerdo con todo lo que ha dicho. Quiero decir que me parece que sus reflexiones, en la medida en la que son las vivencias de una persona que ha dado ese paso y ha avanzado con el euskera, demuestras una riqueza.]*

Ni ez naiz politikoa eta benetan miresten zaituztet horregatik, benetan, izan ere, aurrean daukazuen gauzak eta zer gauzaren kontra egin behar duzuen, hain zentzugabekoak direnen gauzen aurrean, oso zaila egingo litzaidake.

*[Yo no soy política y realmente los admiro por ello, de verdad, ya que las cosas que tienen en frente y las cosas contra las que tienen que ir, frente a esas cosas tan sinsentido, a mí se me haría muy complicado.]*

